

OSOKO BILKURA

HERNANIKO UDALAK 2025EKO IRAILAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

ALKATEA:

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra

ALKATEORDEAK:

Itsaso Lekuona Legorburu
Patxi Ibarguren Etxeberria
Ainara Atorrasagasti Urizar.
Aitor Lukas Solano

ZINEGOTZIAK:

Axier Mingo Arruabarrena
Amaia Miner Canflanca
Aitor Huizi Izagirre
Urko Lazkoz Fernandes
Oier Agirresarobe Lizaso
Kistiñe Rodríguez Polaina
Andoni Amonarraiz Gómez.
José Antonio Cuesta Solé.
Blanca Alberro Aranzasti.
Miryam Vazquez Vecino.
Mikel Gurutzeaga Zubillaga.
Ismael Ganchegui Gonzalez.
Ricardo Crespo Rubio
María Jesús Ruiz Ochoa
Jaione Aristregi Cao
Lurdes López Gorrotxategi

IDAZKARIA:

Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa

KONTU-HARTZAILEA:

Aitor Sarasola Salaberria

2025eko irailaren 30ean osoko bilkura egin da udaletxean, arratsaldeko 18:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bileran Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako zinegotziak eta neu, Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa idazkaria.

Gai zerrenda:

1. 2025-07-29KO OSOKO BILKURAREN 7-2025 AKTA ONARTZEA.
2. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR1860 DEKRETUTIK 2025DEKR2280 DEKRETURA.
3. HERNANIKO UDALA ETA EKOTRADEREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA.
4. ARAU SUBSIDIARIOEN 3. ALDAKETA PUNTUALA. BEHIN-BEHINEKO ONARPENA.
5. LEH.01 EREMUAREN PLAN BEREZIA. BEHIN-BETIKO ONARPENA.
6. HERNANIKO LHI-10.7 SEKTOREKO ESTUBEGI INGURUAN JARDUERA EKONOMIKOEN SUSTAPEN PUBLIKOA EGITEARI BURUZKO HIRIGINTZA HITZARMENA AZKENDUTZAT EMATEA (GALARRETA) . BEHIN BETIKO ONARPENA.
7. 2026KO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.
8. TASEN ETA PREZIO PUBLIKOEN SALBUESPENI ETA MURRIZKETEI BURUZKO ERREGELAMENDUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA.
9. TRIBUTUZ BESTEKO ONDARE-PRESTAZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN SORRERA.
10. OINEZKOEN ETA IBILGAILUEN TRAFIKOKO LEGE-HAUSTEENGATIKO ISUNAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA.
11. HERNANIKO UDALEKO ETXEKO ZAINZA ZERBITZUA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUAREN HASIERAKO ONARPENA.
12. HERNANIKO ETXEKO ZAINZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ONESTEA.
13. ESKARIAK ETA GALDERAK.

1. 2025-07-29KO OSOKO BILKURAREN 7-2025 AKTA ONARTZEA.

Alkatea: Arratsalde on. Oraintxe seiak puntuan dira eta iraileko plenoari hasiera emango diogu.

Ohikoa den moduan, azken plenoko akta daukagu, uztailaren 29an egin genuen osoko bilkurako akta. Ez dakit aktaren inguruan zerbait esateko badagoen... Ados? Bale, **aho-batez onartuko dugu, orduan.**

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR1860 DEKRETUTIK 2025DEKR2280 DEKRETURA.

Alkatea: Bigarren puntua ere hilabeteroko puntua izaten da, hilabete honetan azken plenotik hona eman diren dekretuen berri ematea. Kasu honetan gehiago badira, abuztuan zehar plenorik izan ez genuelako. 1.860 dekretutik 2.280 dekreturako zerrenda. Ez dakit hauen inguruan zerbait esateko badagoen. Ez dago ezer.

3. HERNANIKO UDALA ETA EKOTRADEREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA.

Alkatea: Hirugarren puntura pasako gara, Hernaniko Udalaren eta Ekotraderen arteko lankidetzaren hitzarmenaren proposamena ekartzen dugu. Luze eta zabal hitz egin dugu hitzarmen proposamen honen inguruan. Hitzarmen proposamen hau Ekoland proiektua burutzeko da. Ekoland proiektua lur kutsatu ez toxiko eta ez arriskutsuak kudeatzeko planta bat izango da, bioerremediazio bidez kudeatzeko planta bat. Planta honek lur hauek garbitzean lur horiek berriz ere erabiltzeko aukera emango du eta horrekin batera, Hernanin auzo-konposta kudeatzeko gune bat ere ahalbidetuko du.

Bai batzorde politikoetan, bizilagunekin, hainbat bilera ireki edo ordezkariekin egin ditugunetan azaldu ditugu hitzarmen honen helburuak zein diren, hitzarmen honen ezaugarriak zein diren, ze helbururekin egiten dugun... Esan bezala, hilabete luzeetako lanketa izan da honen inguruan. Zerbait zehatzagoa eduki genuenean jada aurkeztu zitzaizuen eta dokumentuak etab. pasa zitzaizkizuen. Aipatu nahi dugu, lankidetzaren hitzarmen honen bidez, esan bezala, Ekoland egitasmoa martxan jarri nahi dela Jauregiko Kanpozabal eremuan, eta hor egitearekin, lortu dugula lankidetzaren hitzarmen bat egitea Ekotraderen enpresarekin.

Esan bezala, hilabete luzeetan lanean aritu garen egitasmo, hitzarmen edo testu bat izan da, eta Udalaren partetik, nolabait ere hiru printzipio jarraitu ditugu momentu oro, hitzarmen honen bitartez: onura publiko bat bilatzea, auzoan eta ingurunean suerta litezkeen intzidentziak gutxitzea, eta, esan bezala, konpostan eta hondakin kudeaketan pauso garrantzitsu bat eman ahal izatea herri mailan.

Guretzat zergatik da proposamen hau edo egitasmo hau interesgarria: lur kutsatuak badirelako herri honetan ditugun arazo bat, eta horri arduraz heldu behar diogu. Gure herria hazi da garai batean aktibitate industrialak egon den lurretan, gure askoren etxeak lur horien gainean egin dira, eta gure herriak hazten jarraituko du aurretik aktibitate industrialak egon den lurretan. Hortaz, herri bezala, eta Udal bezala, badaukagu ardura bat lur horiekiko. Ze orain arte, lur horiekiko ez da mota honetako kudeatzeko aukerarik izan. Zabortegietara eraman da eta hor ez dugu ardurarik erakutsi. Bada arduraz jokatzeko garaia. Bada gure herrian sortzen ditugun, sortu ditugun lur hauek ekonomia

zirkularrean oinarritutako modu batean erantzuna ematekoa, gaur gaurkoz, orain arte, inguruan existitzen ez dena, eta ekimen honekin posible izango dena.

Esan bezala, lur hauek birziklatu egingo direlako, lur hauek ez direlako ez toxiko, ez arriskutsuak, eta hau nabarmendu nahi dut; eta lur hauek garbitzeko metodoa ekologikoa delako, airera ez delako inongo isuririk egiten. Eta, esan bezala, lankidetzaz hitzarmena landu dugun irizpide horien barruan ere, Eusko Jaurlaritzak jarriko dituen segurtasun eta jarraipen irizpideez gain, Udalak ere gehitu ditu.

Hortaz, esan bezala, hitzarmen honetan hilabete luzeetako lanketa bat, ekarpen eta kezka desberdinak jasotzen aritu gara, saiatu gara behintzat horretan, gaur ez da aktibitatea martxan jartzea erabakitzen, ezta gutxiagorik ere; hau ere foro desberdinetan aipatu izan dizuegu. Gaur abiapuntua da, 0 puntu batean, egitasmo hau egin ahal izateko. Baina, noski, egitasmo honek Eusko Jaurlaritzaren eta dagokion erakundearen baimenak, ingurumen inpaktu txostenak eta horiek guztiak beharko ditu.

Esan bezala, gaur abiapuntu bat da, konpromisoak hartuko ditugu bai Udalak eta bai enpresak, egitasmo hau onuragarria delako martxan jarri ahal izateko. Baina aurretik prozesu luze bat dago.

Esan, lanketa guzti honetan aditu juridiko eta teknikoekin aritu garela lanean eta jarraituko dugula lanean. Gure ustez, esan dut, erronka bat daukagu, guk sortutako lurrak dira eta guk sortutako lur horiei guk eman behar diegu erantzuna. Lanpostuak sortzen ari gara batetik, eta etorkizunerako industria baten lanpostuak sortzen ari gara. Trantsizio ekologikoan eragingo duen industria bat sortzen ari gara eta lanpostuak ere zentzu horretan lanean aritzeko. Bestetik, obligazio bat ere erakunde publikoak badaukagu obra publikoak martxan jartzen ditugunean erabiliko den materialaren, gutxienez, %40 birziklatua izan behar du. Material birziklatua egon ahal izateko, material birziklatua ahalbidetuko lukeen egitasmoak eta plantak egon behar dute. Eta nolabait etorkizunari erantzuteko pausoak ematen ari garela kontsideratzen dugu. Horregatik, hainbatetan aipatu dugun bezala, estrategikoa dela iruditzen zaigu hitzarmen hau eta baita etorkizunean etorriko den planta ere.

Azalpen hau eginda, egingo duguna da erronda ireki, alderdi edo talde politiko bakoitzak iritzia emateko. Pentsatzen dut denek izango duzuela zerbait esateko. Txikienetik handienera egingo dugu erronda.

Jaione Aristregi: Errepideen eta autobideen artean itxita dagoen herri batean bizi gara, horrek dakarren kutsadura mailarekin. Zarata, partikula kutsatzaileak, ikusmen-inpaktua... Industrialdeak ibai-ertzetik kilometro askotara instalatzea ahalbidetu dugu. Eta zaharkituta geratu ahala, lursail gehiago uzten ditugu industrialdeetarako. Antzinakoak hondakin bihurtuz eta inork bertan inbertitzeko aukerarik gabe.

Harrobi batek Santa Barbararen erdia hartzea baimendu dugu. Begiratzen dugun lekura begiratzen dugula, papelera bat edo zentral elektriko bat ikusiko dugu, elektrokimika bat ere badugu, eta Abiadura Handiko Trena herriko eremu lauetako batetik igarotzeko planak daude. Errota eolikoek ezarpenaz ere hitz egiten da. Hitz egiten ez denaz edo gutxi hitz egiten denaz, jendeak berdeguneak mantentzeko duen beharraz, paseatzeko, arnasa hartzeko eta atsedean hartzeko lekuez, hainbeste kutsadura bisualen aurrean. Oso ondo dago teknologia berriek hondakin kutsatuak tratatzea, baina Hernanin ezin dugu gehiago. 10.000 m² baino gehiagoko eraikina eta Jauregitik kamioi-fluxu etengabea ez dugu merezi eta ezin dugu onartu.

Beraz, hitzarmenaren aurka gaude.

Ricardo Crespo: Arratsalde on, guztioi.

Alkatearen hitzekin bat nator. Nire ustez, administrazioen erantzukizuna da sortzen ditugun hondakinei irtenbide bat ematea. Gaineratu behar da hori ere ekimen pribatua dela, eta, gure aldetik, hitzarmen honekin saiatu garena da horrelako planta bat baimentzeko edo ez, legezko eskakizunak sartzen.

Mikel Gurutzeaga: Arratsalde on, guztioi.

Guk proiektu honetaz lehen albistea 2024ko urrian izan genuen. Uste dugu ordurako aspalditik landuta zegoela proiektua Gobernu Taldearen eta egitasmoa gauzatuko duen enpresaren artean.

Gure taldea beti egon da ingurumenaren aldeko jarduera berritzaile hauen alde. Beharrezkoak ikusten ditugu, baina egitasmo honen kokapenaren inguruan gure helburua Hernaniko industrialde batean kokatzea izan da beti. Proiektua ezagutu bezain pronto, lanketa bat egin dugu kokapen alternatiboak aurkitzeko, baina aukerak aztertu eta gero ez da leku nahiko handia aurkitu Hernaniko industrialdeetan instalazio hau jartzeko. Horren ondorioz, eta asunituz proiektua aurrera aterako zela, eta arduraz jokatzuz, Jauregi inguruko etorkizuneko hirigintza arloaren ingurumenaren eta bizilagunen eragindako afekzioen inguruan, proiektua eta hitzarmenari hainbat hobekuntza garrantzitsu aztertu eta proposatu dizkiogu.

EAJ-PNVk hurrengo hobekuntzak proposatu ditu. Labur aipatuko ditut:

Hirigintzaren ikuspegitik, Jauregiko ingurua etorkizunean ere babesteko asmoz, hurrengo Arau Subsidiarioen berrikuspenetan eremu hau ez dadila industrial gisa birkalifikatu proposatu du EAJ-PNVk. Helburu honekin akordio bat sinatu dugu EH Bildurekin.

Proiektua aurkeztu zenetik, oso garrantzitsutzat jo genuen plantara sartzeko ibilbideak egungo bideak ez izatea. Kamioien joan-etorrien eragin handia ekiditeko.

Bestalde, pabiloitik kanpora 0 isurketa lortzeko sistema aurreratuak ezartzea adostu dugu.

Paisaiaren inguruan, paisaiaren integrazioa eta inpaktu bisuala zein akustikoa murriztea da beste helburu bat.

Urbanizazio kota ahalik eta txikiena izatea adostu dugu, pabiloia azken altuerak inpaktu bisual txikiena izan dezan.

Horrez gain, tamaina handiko zuhaitzek osatutako gerriko berdea sortuko da instalazioaren eta sarbide berriaren perimetro osoan.

Lurren mugimenduak minimizatzea da, baita ere, gure helburuetako bat.

Kanpozabal harrobi zahar eta ondoren autoak desegiteko jarduerako lur-saileko lurren deskontaminazioa bertan egingo da, ingurumen legeek ahalbidetzen duten neurrian. Horrela, beharrezkoak ez diren garraioak ekidindo dira.

Tokiko enplegua ere garrantzitsua ikusten dugu eta hori sustatzen da hitzarmenean. Proiektu berri hau abian jartzeko egin behar diren kontratazioen %60 Hernanin bizi diren herritarrentzat izango dira, jarduerak ahalbidetzen duen neurrian.

Gure taldeak hobekuntza garrantzitsu guzti hauek hitzarmen honetan ezartzea lortu du udal gobernuarekin izandako elkarrizketetan. Gure boto aldaketa gertatu da, proiektua EH Bildurekin gehiago osoak gauzatzeko duela ikusita, guk lehentasuna eman diogulako proiektua hobetzeari. Eta Jauregiko bizilagunei afekzioak ahal den gehien murrizteari. Kokapenari, gure hasierako ezezkoari baino.

Alkatea: Eskerrik asko, denei. Pentsatzen dut bizilagunen ordezkariak hitzen bat hartu nahiko duzuela. Egingo duguna da erronda politikoa bukatu eta gero hitza emango dizuet.

Aipatzeagatik, ideia batzuk aipatu dira, baina nik uste administrazio publikoak ardura baduela, esan dut herri bezala ardura bat badaukagula guk lan egin dugun industria horiek sortu duten lur horiek kudeatzeko. Lur horiek kudeatu behar dira gu bizi garen etxe horiek eraiki direlako beraietan, eta horiek beste toki batera eraman direlako. Badagokigu.

Harritu nau alderdi politiko edo talde politikoren baten iritzi aldaketak, eta Elkarrekin-Podemosena da. Ze plantaren kontra zaudetela adierazi duzue, inguruan dagoen industriarekin etab., baina irailaren 11ko batzordean "Jaione Aristregi batzordekideak zentzu berean adierazten du beraiek ere proiektuaren alde bai".

Jaione Aristregi: (...).

Alkatea: Baina proiektuaren alde bai. Aipatzen da: "alde bai, baina beste kokapen batean nahiko luketela".

Ez dator bat gaurko diskurtsoarekin. Eta nik uste dut zintzo jokatu behar dugula. Esan nahi dut, guk esan dugu Udalaren partetik edo udal gobernuaren partetik esan duguna da zalantzak argituko ditugula eta gero iritzia norberak eraiki dezala. Eta hori bai batzordeetan egin dugun bileretan, batzordeetan egin diren azalpenetan, zein bizilagunekin egin diren bileretako azalpenetan. Tira, zilegi da eta bakoitzak bere iritzia dauka, aldaketak modu batera edo bestera izan daitezke, baina nik uste dut gezurrik ezin dugula esan.

Egingo duguna da, bestela aktan ez baita jasotzen, hitz egin behar duenak hitza eskatu dezala; bestela aktan ezingo da jaso. Eta itzultzaile bat ere badaukagu hor atzean gu esaten ari garen guztia itzultzen ari dena, eta bestela ezin dira gure hitzak itzuli.

Erronda bukatuko dugu, eta hitz egin behar duenak, modu ordenatuan izan dadin, eskua altxa dezala.

Zentzu horretan noa, iritzia zilegia da alde edo kontra; guk adierazi dugu zergatik ikusten dugun interesgarri, baina ezin duguna da egiarekin ez jokatu.

Bigarren erronda bat irekiko dugu eta gero emango dizuet hitza.

Jaione Aristregi: Zuzentzea jakintsuena da, eta herritarrei entzutea ere bai. Eta Gobernu Talde honek egin beharko luke. Entzutea.

(Txaloak publikotik).

Alkatea: Eskerrik asko, Jaione.

Beste taldeok ez baduzue ezer esateko, nik ixteko: Udal Gobernu Taldeak ez entzunarena... berriz aipatuko dut, guk ez diogu iritzia inori aldatu nahi eta argi dago batzuek ez duzuela aldatuko. Beste batzuk "rectificar es de sabios", baina hasieratik egia kontatzea ere bai. Eta, entzutearena, nik uste dut Udal Gobernu honek aukera gehiago izan dituela bizilagunekin egoteko eta egon dela; eta antolatuta dauden bizilagunei ere elkartzeko deiak egin dizkiegula. Eta, adierazi dugu, guk elkartzeko arazorik ez. Eta hala izan denetan eta eskatu den guztietan egin dugula.

Eta esango nuke entzun ere bai, eta ez gara denean ados egongo, baina entzun ere bai, aurreko batzordean proposatutako edo adierazitako beldur batzuk edo asko, hitzarmen honetan sartuta daudelako. Esan denean gehiago absolutua etab., baina EAJ-PNVren ekarpenak sartuta daude, Euskal Sozialistak udal taldearen ekarpenak sartuta daude eta Elkarrekin-Podemos udal taldearen ekarpenak jasota daude.

Hortaz, argudio horiek ere ez datoz bat errealitatearekin.

Alde desberdinetako proposamenak jasota daude eta egon daitezkeen kezka horiei aurre egiteko moduak jasota daude. Esan bezala, hemendik aurrera bide luzea dago oraindik ere.

Ixidro (Jauregiko Auzo Batzarraren izenean): Auzo adierazpena Jauregi bailarako tratamendu plantaren aurka.

Hernaniko Udalak Ekotrade enpresarekin batera lur kutsatuak tratatzeko planta jarri nahi du Jauregiko bailaran. Planta jarri nahi duten eremua ez da eraikigarria. Jauregiko bizilagunak proiektu honen aurka gaude. Gure iritzia lur kutsatuen arazoaren garrantziaz eta larritasunaz jabetzen gara. Horregatik, lur kutsatuen garbiketa eta berrerabilpena babesten dugu, baina arazoak diagnostiko orokor eta zorrotzagoa eskatzen du, edozein neurri hartu aurretik.

Arrazoiak:

- a) Ingurumen arriskua. Sustantzia toxikoak filtratu egin daitezke, lurra bera, akuiferoa edo airea kutsatuz.
- b) Osasunean inpaktua. Isuri eta partikula toxikoen emariak gertatuko ez direnaren bermerik ez dago.
- c) Landa eremuari kaltea. Ekologia, paisaia eta nekazaritzaren balio galera ekar lezake planta honek.
- d) Gardentasun eza. Ez da herritarrekin kontsultatu eta ez da parte-hartze prozesurik egin.
- e) Kontraesana jasangarritasunean. Udalak bere egiten dituen jasangarritasun konpromisoen aurkako proiektu bat da.
- f) Landa ekonomikoa eta bizi kalitatean eragin txarra. Bertako ekonomia eta ongizatea kaltetuko ditu.

- g) Arazo publiko baten aurrean, kudeaketa pribatua. Interes ekonomikoa besterik ez duen enpresa baten esku uzten da proiektua. Construcciones Moyua. Honelako larritasuna eta tamaina duen arazoa ezin da eraikuntza enpresa baten esku utzi.
- h) kokaleku desegokia. Terrenoaren prezio baxuagatik aukeratu da tokia, ez irizpide tekniko edo ekologikoengatik. Eremu industrial egokiagoak badaude, baina lursail industrialak askoz garestiagoak dira. Hori da hemen egitearen arrazoia.

Zer proposatzen dugu?

Eremu hau espazio berde, publiko eta jasangarria bihurtzea. Naturgunea, baratze komunitarioa, paseatzeko gunea, edo eremu babestua. Pandemian ikusi genuen espazio publiko naturalek osasunean eta gizartearen ongizatean duten garrantzia. Zaindu, biderkatu eta hobetu egin behar dira.

Zer eskatzen dugu?

Proiektua bertan behera utzi edo bizilagunik gabeko industriagune batean birkokatu dezatela. Partehartze prozesu erreal bat martxan jartzea.

Manifestu hau ez da konfrontaziorako, Jauregi bailarako zein Hernani osoko bizilagunentzat etorkizun osasuntsu, justu eta jasangarriagoa defendatzeko gure aldarrikapena baizik.

(Txaloak publikotik).

Alkatea: Eskerrik asko, Ixidro.

Esandakoa, kezka asumitzen dira eta gure lana bada kezka horiei aurre egitea. Eta nik uste dut aipatu direnak, badaudela hasieratik hona, neurri batean badaudela nolabait argituak edo maila gutxituak. Adibidez gogoratzen naiz lehen aldiz elkartu eta hitz egin genuenean, osasunaren eta ingurumenaren inguruko kezka handia zen. Kezka handia zen eta gu, aditu teknikoekin batera, saiatu gara horiek azaltzen bioerremediazio sistema honek ez duelako inongo isuririk sortzen.

Gero hor aipatzen da plantak berak ze babes izango dituen eta horiek denak hitzarmenean sartu ditugu.

Iruditzen zait kezka horretan ere, nolabait gutxitu dela kezka hori, proposatu baituzue beste gune batean, proposatu zenuten Zikuñagan egitea eta hemen ere proposatzen duzue industriagune batean egitea, bizilagunik ez dagoen industriagune batean. Industriagune guztiek dute bizilagunen bat, langileak ez badira, inguruan, herri honetan.

Honek demostratzen duena da, behintzat, zalantza batzuk argitu direla. Ados, kokapena zuek ez duzue egoki jotzen, baina jada behintzat ingurumen eta osasunaren inguruko zalantza horiek gutxitu direla esango nuke. Eta guri badagokigu...

(Publikotik hizketan).

...guri badagokigu horiek argitzen joatea. Aurrekoan batzordean ere esan genuen, zalantza gehiago sortuko dira, aditu teknikoa proiektu osoan zehar egongo da, eta esaten denean... ez gara ezertan

hasi, hau da, esaten denean momentu batean “gardentasun eza, ez da herritarrekin kontsultatu”. Gardentasun ezaz ez nuke hitz egingo nik eta inpresioak subjektiboak dira eta egon daiteke e, eta hori errespetatzen dut. Hitzarmen honek ez du zertan udalbatzatik pasa, eta erabaki dugu udalbatzara ekartzea. Ez du batzordetik pasa behar pasa den aldi guztietan. Hitzarmen honek juridikoki ez daukalako Udalarentzat inongo gastu ekonomikorik. Baina iruditzen zaigu hain estrategikoa den hitzarmen batek eta horrelako dimentsioa duen hitzarmen batek pasa behar duela, eragiten duelako. Eta honek aukera eman behar duela gaur hemen gertatzen ari dena ikusteko. Proiektu honekiko badago oposizio bat auzoan. Auzoan kokapena gustatzen ez delako edo egoki ikusten ez delako.

Nik bestetan aipatu dudan bezala, honek orain tramite administratibo asko eta luzeak dauzka. Honek izango ditu orain, esan dugun bezala, ingurumen inpaktu proiektuak prestatu behar dira Eusko Jaurlaritzak onar ditzan, hirigintzako hainbat tramite egin behar dira... eta hauek guztiak publikoak dira. Hauek guztiek beren aurkezpen publikoa izango dute, non Udalak plenotik pasa beharko dituen, jendaurrean jarri beharko dituen, alegazioak formalki egiteko moduan izango den... Hori formalki egiteko modua izango da, baina era berean Auzo Elkartearekin besteetan elkartu garen bezala, dokumentuak trasladatzeko, zailtasunak ikusteko, hobekuntzak ikusteko, Gobernu honek besteetan ere esan dizue, baina noski prest egongo garela horretarako.

Bide luzea dagoelako oraindik, tramite asko daudelako horretan eta elkarren kontaktuak baditugu, harremanak badauzkagu, aurretik ere egin ditugu eta aurrerantzean ere horretan jarraitzea espero dudala benetan esaten dizuet, modu horretan eta maila horretan.

Eta gustatu zait zure ahotik entzuteak manifestu hau ez dela konfrontazio bat. Zeren inondik inora konfrontazioa bilatzen, pentsatzen dut, inor ez dela ari eta modu eraikitzaile batean egin behar dugula aurrera. Eta Gobernu honen desioa behintzat eta pentsatzen dut Udal guztiarena ere, hala dela.

Erantzun bat eta itxi egingo dugu gaia.

Ixidro (Auzo Batzarraren izenean): Ez naiz zure diskurtso osoan sartuko, baina bai eskertuko nizuke Zikuñaga aipatu duzun moduan, zuzentzea. Zeren guk auzotar moduan inoiz ez dugu planteatu Hernaniko beste auzo batera arazoa eramatea. Guk beti planteatu dugu industria eremuetara. Eta industria eremu horien artean egun batean Eziago aipatu zen. Baina ez dugu inoiz planteatu beste auzo batera eramatea arazo hau. Argi. Zeren guk argi daukagu auzoak bizilekuak direla, ez industria garatzeko lekuak.

Alkatea: Zikuñaga esatean, noski, ez Zikuñagako etxeak kendu eta hor jartzea, baina hemen, aktan daukat gordeta. Ez dut esango, izenarekin dagoelako, batzordean parte hartu zuen kideak aipatzen du ezagutzen dutela beste espazio posible bat Zikuñaga papeleraren atzealdean. Zikuñaga papeleraren atzealdea Zikuñaga auzoa da.

Baina lehen aipatzen nuen ildo horretatik, ez dudala asmatu esan nahi nuen, hemen dagoelako. Eta nolabait ere, ikusteko ez dela plantari berari ezetz. Zeren hemen ere planteatzen duzue, plantari berari ez da ezezkoa, kokapena ez da egokia, diozue. Hori da manifestu honetatik ateratzen dena, besteak beste. Kezkak bai osasunean eta ingurumenean sortu ditzakeenak, eta ados, eta zilegi dira eta guri dagokigu kezka horiek guztiak argitzea. Bide horretan jarraituko dugu elkarrekin, espero dut, lanean.

Eskerrik asko, Ixidro.

Honekin, bozkatzera pasako gara.

Joxean (auzotarra): Hiru galdera dauzkat. Batetik, hemen entzun dut hemengo lur kutsatuak tratatuko direla hor. Nik entzun izan dut hemengo lur kutsatuak eta inguruak. Eta entzun nuen, gainera, "eta noraino zabaltzen da inguru hori?". Ez dakigu inguru hori noraino zabaltzen den. Lur kutsatuak hemen tratatu behar dira hemengoak. Kanpokoak ez dakit non.

Bestea, eremu industrialean guk esaten dugu egin behar dela. Zikuñaga aipatzen da. Nik hemen behin, ez udaletxean, baina Ricardo Crespo interpelatuko dut orain, Euskal Sozialisten sedera joan ginen eta nik galdera egin nion ea Eskuzaitzetan, erraustegiaren eremuan, ez al zegoen terrenorik libre honentzat, adibidez. Eta esan zidan ez zegoela libre ezer. Ezta ezer ere.

Nik prentsan irakurri dut eta ez aspaldi, uztailean, hor terreno mordoxka bat zegoela oraindik libre eta enpresa dezente zebiltzala atzetik. Baina orain ez zenez koiuntura ona zeuden saltsengatik, ez zuela inork hartu nahi. Baina salgai daude lursail asko, oraindik. Noski, 400-500€ metro karratua. Horrek agian Ekotrade galarazten du. Eta hor gertu-gertu ez da inor bizi. Inor ez.

Eta hirugarrena, horrek izena du complejo medioambiental. Zerbait esaten du horrek, ez? Zerbait esan nahiko du. Hau ere ingurumenean sartuko dela pentsatzen dut...

(Txaloak publikoan).

Alkatea: Eskerrik asko. Bi kontu azkar. Hemengo lurren inguruko ardua bat badaukagula esan dut eta ojala horrelako egitasmoak lehenago etorri izan balira, orain arte kanpora eramane ditugun lurrak hemen kudeatzeko eta birziklatzeko moduan izango ginatkeelako.

Ez dugu inoiz esan Hernanikoak bakarrik kudeatuko direnik. Ingurua Donostialdea eta Gipuzkoa osoa ez dakit, baina Donostialde ingurua hartzen duen eremua da eta hori beti esan izan dugu.

Bestetik, Eskuzaitzetaren inguruan, nik ez dut esan inon, ez dakit nork esan dizun, eta Gobernu Talde honetako inork ez du esan Eskuzaitzeta okupatuta dagoenik, guk ez daukagulako bat, Donostiako Udalaren lurrak direlako eta bi, Hernaniko Udalak ez duelako Eskuzaitzetan inongo eskumenik.

Honekin orain bozkatzera pasako gara. Hernaniko Udala eta Ekotraderen arteko lankidetzahitzarmenaren aldeko botoak? EH Bildu, EAJ eta Euskal Sozialistak udal taldeenak. Kontrako botoak? Elkarrekin-Podemos udal taldearenak.

Bozketaren emaitzak

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	19	<ol style="list-style-type: none"> Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. Itsaso Lekuona Legorburu. Patxi Iburguren Echeverria. Ainara Atorrasagasti Urizar. Aitor Lukas Solano. Asier Mingo Arruabarrena. Amaia Miner Canflanca.

		8. Aitor Huizi Izagirre. 9. Urko Lazkoz Fernandes. 10. Oier Agirresarobe Lizaso. 11. Miren Kistiñe Rodriguez Polaina. 12. Andoni Amonarraiz Gómez. 13. José Antonio Cuesta Solé. 14. Blanca Alberro Aranzasti. 15. Miryam Vazquez Vecino. 16. Mikel Gurutzeaga Zubillaga. 17. Ismael Ganchegui Gonzalez. 18. Ricardo Crespo Rubio. 19. María Jesús Ruiz Ochoa
KONTRA	2	1. Jaione Aristregui Cao. 2. Lurdes López Gorrotxategi.
ABSTENTZIOAK		

Honekin, beraz, Hernaniko Udalaren eta Ekotraderen arteko lankidetzaz hitzarmena onartutzat ematen da.

OSOKO BILKURAK HARTUTAKO ERABAKIA

Hernaniko Udalbatzaren Toki Garapeneko Batzordeak, zenbait bileratan aztertu du Hernaniko Udala eta Hernaniko Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena Ekoland izeneko proiektua diseinatu eta gauzatzeko, datozen lau urteetarako.

Hitzarmen horren xedea da Hernaniko Udalaren eta Ekotraderen artean lankidetzaz arautzea, proiektu hori diseinatu eta gauzatzeko. Proiektuaren helburuak honako hauek dira: Komunitatearen konpostajetik datorren konposta eta Hernaniko Udalerraren material egiturazaila bahetzeko eta biltegitratzeko funtzioarekin bat datorren instalazio bat eraikitzea; indusketatik datozen eta hondakin ez-arriskutsu gisa sailkatuta dauden lur kutsatuak kudeatu eta tratatzeko instalazio nagusi bat eraikitzea, bioerremediatze- eta garbiketa-tekniken eta beste teknologia berri batzuen bidez (Europako Hondakinen Zerrendako 170504 kodea); instalazioaren barruan jarduera nagusiaren osagarriak diren prozesuak edo jarduerak garatzeko behar diren espazioak eta azpiegiturak gaitzea; suntsipen termikoko prozesuak, ezabatzeko-eragiketak eta R01, R02, R06, R08 eta R09 balorizazio-eragiketak hitzarmenaren xedetik kanpo uztea eta Hernaniko Udalaren energia elektrikoaren ekoizpen-, kudeaketa eta merkaturatzeko arloan parte hartzen duen ekimen komunitarioekin aktiboki aritzea lankidetzan.

Hernaniko Udalak eta Ekotraderak, biek ala biek, zehaztu dituzte alderdi bakoitzak bere gain hartzen dituen lankidetzaz-konpromisoak hitzarmenaren testuko hirugarren eta laugarren hizpaketetan.

Kontuan hartu da Toki garapeneko batzordeak 2025eko irailaren 25eko bilera gehiengoaz emandako irizpena

Horiek horrela, hau erabaki da **gehiengoaz**

1. Lankidetzeta-hitzarmena sinatzea Hernaniko Udalaren eta Ekotraderen arteko lankidetzeta arautze aldera, Ekoland izeneko proiektua diseinatu eta gauzatzeko.

4. ARAU SUBSIDIARIOEN 3. ALDAKETA PUNTUALA. BEHIN-BEHINEKO ONARPENA.

Alkatea: Plenoarekin aurrera jarraituko dugu. Hainbat puntu dauzkagu lantzeko. Hurrengoa, laugarren puntua, arau subsidiarioen hirugarren aldaketa puntualaren behin-behineko onarpena ematea izango litzateke eta Ainarak azalduko digu.

Ainara Atorrasagasti: Ez da lehen aldia hau plenotik pasatzen duguna. Dakizuen moduan legealdi hasieratik auditorioaren proiektuarekin lanean gabilta eta lehen urratsa kokalekuaren aldaketa da. Horretarako, beharrezkoa da arau subsidiarioaren aldaketa hau. Dakizuen moduan, hasieran auditorioa Latsunbeko eremuan planteatuta zegoen eta honek ahalbideratzen du Latsunbetik Urumea ikastola zegoen lekura ekartzea. Eta, horrez gain, Izpizua kalean ordenazioz kanpo dauden etxebizitzaren eskabidea Latsunbera lekualdatzea eta horrekin, gainera, eraikigarritasuna handitu ahal izatea.

Berez, ulertzen dugu leku aldaketa honek herriaren erdigunean biziberritzeko eta kultur eskaintza indartzeko aukera aurrera pauso handi bat dela. Kultur ekipamenduaren presentziak herriaren erdigunea biziberritzen lagunduko du, kokapen honek, gainera, beste erakundeekiko eta eragileekiko sinergiak sortzen lagunduko du. Badauzkagu hezkuntza, merkataritza, Sandiusterra edo Musika Eskola hurbiltasun batean. Erdiguneko kokaleku horrek, zentralitate horrek kulturaren ikusgarritasuna areagotzen du eta, gainera, merkataritza eta ostalaritzaren sustapena bultzatzen lagunduko du.

Aldaketa hau da proposatzen dena arau honekin.

Ez dakit galderarik dagoen.

Alkatea: Eskerrik asko, Ainara. Erronda irekiko dugu.

Jaione Aristregi: Batzordean galdetu nuela uste dut. Uste dut ez dela hori arau subsidiario hauen barruan datorren aldaketa bakarra. Auditoriumaren lekua aldatzeaz gain, beste bi aldaketa txiki ere baziren: labaderoa, 118 metroak, eta bulebarizazioaren bizigarritasuna.

Puntuka bozka daiteke?

Alkatea: Idazkariari galdera. Hori puntuka bozkatzeko aukerarik izango litzateke? Aldaketa bat da eta dena bozkatu beharko litzateke.

Jaione Aristregi: Orduan gure taldea abstenitu egingo da.

Alkatea: Eskerrik asko, Jaione.

Ricardo Crespo: Guk kontrako bozka emango dugu, behin eta berriz esan baitugu trafikoko arazoak sortuko dizkigula kulturagune berria bertan kokatzeak. Hau, gainera, behin eta berriz hitz egin dugu batzordeetan. Horrez gain, uste dugu azken finean dena erdigunean jartzen ari garela eta uste dugu geneukan beste kokalekua, nahiz eta seguruenik nahi ditugun ezaugarriak ez bete, hobe zela eta, gainera, horrela zerbitzu batzuk erdigunetik pixka bat harago eramaten ditugu auzoetara.

Alkatea: Eskerrik asko, Ricardo.

Mikel Gurutzeaga: Guk ere, batzordeetan adierazi dugun bezala, kulturgunearen kokapena nahiago genuke Urbietan kalean mantentzea. Den-dena Kaxkora ekartzearekin ez gaude ados eta uste dugu auzoetara, eta nahiko gertu dago, eraman daitekeela kulturgunea.

Beste puntuarekin ados egongo ginateke, baina puntu hau barne dagoela, ezezkoa izango da gure bozka.

Alkatea: Eskerrik asko, Mikel.

Ainara Atorrasagasti: Ulertzen dut, Jaione, nondik datorren zure galdera. Eraikigarritasunarena esan dut, puntu honek aldatzen duela Izpizua kalean ordenazioz kanpo dauden etxebizitzaren lekualdaketa horrekin hara eramaten dela, Latsunbera, eta gainera eraikigarritasuna handitzeko aukera badagoela. Honek suposatzen du, baita ere babes ofizialeko etxebizitza gehiago egiteko aukera.

Eta, zuk aipatzen dituzun bi puntu horiek badira eremu honekin ez hain lotura estua dutenak, bai Elizatxo azpian dauden bi puntu dira. Aldatzen dena da permuta bat. Bi zatien permuta bat. Eta horrekin lortu nahi duguna da etorkizun batean hor garapen bat baldin badator, bermatzea ikastolaren aurreko pasifikazioa. Hau da, gaur egun dagoen moduan aldaketa hau ez badugu egiten, hor garapen bat egiten bada, bai ala bai garajerako sarrera ikastolaren sarrera nagusitik izango da. Orduan, honek egiten diguna da, ixten den eta pasifiko egiten den eremu horretatik kanpo egotea garaje sarrerak. Zalantza hortik badoa, permuta hori da bermatzeko segurtasuna espazio horretan.

Alkatea: Ez badago bigarren erronda baten beharrik, aurrera egingo dugu. Bizilagun batzuk bazaudetela ikusten dut eta ez dakit norbaitek hitza hartu behar duen.

Victor (publikotik): Kaixo guztioi, arratsalde on. Orain, permutaz hitz egiten ari garela, Atzieta eta Elizatxoko garapen urbanistikoa dela eta, Jauregikoak etorri diren bezala, herritar talde bat gaude hemen.

Permutez, garaje-sarrez eta abarrez hitz egiten ari gara. Orduan, nik ikuspuntu pertsonal bat eman nahi nuen, nire ustez oso partekatua dena, udalarekin egindako bileraren batean azaldu zena. Ez dut baloratuko permuta ona edo txarra den. Hernaniko berdegune batean 52 etxebizitza eraikitzeke plan bat dagoela esatea, besterik gabe. Nire ustez, berdegune hori, hainbat jabetzako inguruabar historikoengatik, berde mantendu da, Hernaniko hirigune historikotzat hartzen den Atzieta zati bat; hor eraikiko da. Nik uste dut erabat gainezka dagoen eremua dela, eta nik uste dut alternatiba bat bilatu beharko litzaikeela eremu horri; izan ere, herrigunean bizi garenok badakigu nola dagoen irisgarritasunen, aparkalekuen eta abarren gaia, ikastola, bide-mozketak... Eremu horretan beste 52 etxebizitza sartzen badira, nik uste dut beste irtenbide bat bilatu beharko litzatekeela. Ez naiz sartuko 2011n onartuta dagoen, 2010ean, igogailua dagoen, igogailurik ez dagoen... Udalarekin egindako bileraren batean esan zen bezala, nik uste dut merezi duela hor zer egingo den hausnartzea. Izan ere, nire ustez, hori kasko historikoa da. Atzieta hirigune historikoa da.

Gaur egun, bidaiatzen baduzu, pixka bat ikasten baduzu edo irakurtzen baduzu, hirigune historikoak eta hiriguneak, horiek garbitu eta gizatiartzeko joera dago. Txirrindularientzat, oinezkoentzat egin, garbitu, berdeguneetan eta peatonalizazioan irabazi. Nik uste dut proiektu horrek Hernaniko kaskoa gehiago beteko duela. Etorkizunari begira, nire ustez, pena bat izango da; galduko den berdegune

bat. Eta oso ondo ulertzen ez dudan beste gauza bat da, herriarentzat berdegune oso bat berreskuratu nahi badugu, kaskoa inguratzen duen gerriko bat, oso ondo ulertzen ez dudana da: gerriko bat herriarentzat berreskuratzeko, gerrikoaren laurden bat hormigoitu egin behar da.

Interes pribatuak, publikoak... daudela uste dut. Hori eraikigarria da. Baina hemen egingo den kultur etxeaz ari bagara, Ezkiaga pasealekua oinezkoentzat egiteaz ari gara, herriarentzat oinezkoentzako gune berde bat sortzeaz, nik uste dut ez dela soilik Ezkiagara begiratu behar, gerriko osora begiratu behar da. Hernani pabiloi industrialez inguratuta dagoelako. Historikoki mantendu den zerbait badugu inork ukitu ez duelako, inork nahi izan ez duelako edo multijabetza bat izan delako, ez dakit zergatik ezin dugun berreskuratu hirigintza-plan bat eginez, terrazak, igogailua, ikastola deskongestionatzea haurrentzat, aparkalekuak kaskorako... Ez dakit, bizigarriagoa egiteko kaskoa, dauzkagun arazo guztiak ikusita.

Iritzi pertsonal bat besterik ez da, gai horren guztiaren beste ikuspegi bat. Burura datozkit Leokaren gaineko eraikinak. Zaharrok denok ezagutu ditugu betiko eraikuntzak, labaderoaren gainean, labeak, Txalapartaren atzean, Tamer tabernaren aurrean... dena etxebizitzak ziren. Bota eta berriro eraikitzea zen! Plana zegoen, onartuta zegoen, eta Udalak atzera egin zuen. Ez dakit zer egin zuen, permuta bat, ez, baina errege-bideko arkuak berreskuratu ziren, ingurua garbitu zen... Ez dakit, etorkizun baterako ikuspegia besterik ez da. Nik ez dut ikusten hor 52 etxebizitza sartzen direnik. Ez naiz sartuko inpaktu txikikoa, handia, ertaina, librea, babesekoa den. Besterik gabe, epe luzerako ikuspegia da herriarentzat, herrigunetik gertu dagoen apurra mantentzen jarraitzeko, Hernanik horri eustea merezi baitu.

Ez dakit, nik uste, oso egingarria dela kultur areto berria, Ezkiaga, errege-bidea, (...), Leoka, lotu... Ez dakit, hori hirigintza kontua da eta ni ez naiz lan horretan ari, baina badakit zer egiten den edo zer egitea eskatzen den.

Besterik gabe, ez dut uste arazoa igogailua edo antzeko ezer denik. Hernanikoa bezalako udal batentzat, ulertzen dut hori konpondu daitekeen tontakeria bat dela... Kontua trabatuta dago, baina ez da gai nagusi bat. Borondate kontua da. Uste dut. Nire iritzia da. Gaiaren beste ikuspegi bat da, besterik ez.

Alkatea: Eskerrik asko, Victor. Azkenekoarekin hasiko naiz, uste dut diskurtso batzuk ere arriskutsuak direla. Hernanikoa bezalako Udal batentzat igogailu bat ez dela ezer... Kontuz horrekin. Nik uste dut argi eduki behar dugula igogailu baten aurrekontua zenbatekoa den. Eta horrek ze inpaktu daukan. Bestela, mezu bat zabaltzen ari garelako dena mugarik gabekoa dela, infinitua, eta edozer gauza dela posible. Eta ez. Hemen aurrekontuak mugatuak dira eta igogailu baten aurrekontua oso-oso altua da. Gaur gaurkoz zenbaki bat botako dut, milioi eta erdi dauzkagu gordeta, baina oso posible da hori baino gehiago izatea. Eta hori Hernaniko Udalarentzat diru asko da.

Esan nahi dut, kontuz ibili behar dugula horrelako kontuak aipatzen ditugunean.

Ados egon naiteke filosofian. Bai, gune berdeak publikatu behar ditugu, eduki behar ditugu, eta garapen urbanistiko horrek hori da egingo duena. Egia da etxe batzuk eraikiko direla. Etxe premia bat badagoelako. Eta hori ikerketa guztiak adierazten dute. Hernanin badago etxe premia bat. Eta batez ere etxebizitzak eskuragarri izateko zailtasuna ikaragarria dago Hernanin. Garapen desberdinak egiten ari gara babes ofizialekoak eta hemen ere joango da eraikin bat babes ofizialekoa. Eta hori beharrezkoa da Hernanin.

Garapen urbanistiko honekin, lortzen duguna da gaur egun pribatua dena eta inor sartu ezin gaitzekeen lur horietan sartzea. Eta lur horiek berde eta peatonalizatuta izatea. Gaur egun inongo herritarrek ez baitute gozaten Atzietako parte berde horretaz guztiaz. Goiz Eguzkiko eremuaz bakarrik, baina bai alde batera eta bai bestera, gune pribatuak daude. Horrek moztu egiten du. Garapen honekin lortuko duguna da Atzietari bizi gehiago ematea, jendea ibiliko delako gehiago, atzeko partea izateari utziko dio, eremu hori dena publiko izatera pasako da eta horrek lotura bat egingo du eskolaren eraikinarekin, joan-etorriak eta mugikortasuna aldatuz.

Ez da garapen bat ezer aztertu gabe egin dena. Erabat lotuta dago eta aztertu da hemen egingo den garapen berriarekin; kultur ekipamendu eta Lizeagako berrikuntzarekin erabat lotuta dago. Hau 2011ko arau subsidiariorik datorren kontua da eta ondo koordinatu behar dena igogailuaren eraikitzearekin. Igogailuaren beharra premiazkoa delako. Eta hori Elizatxo eta Portuko auzotarrek behin eta berriz esaten digute. Igogailuaren proiektu honekin urte pila bat daramagu, teknikoki oso-oso konplikatu izaten ari baita. Portuko bizilagunek esaten digute: "nik ez dut ezagutuko eta aurretik hil egingo naiz". Oso inportantea da igogailuaren proiektu bat akorde joatea etorriko den garapenarekin, zeren bestela jarriko dugu igogailu bat inongo zentzurik ez daukana. Eta momentu honetan egiten ari garen lanketa da arauetan jarrita dagoen garapen hori ondo fusionatzen, ondo bateratzen, igogailuaren eraikitzearekin. Esan bezala, horrekin lortuko dugu zona berde publiko bat edukitzea. Zeren ez ahaztu, gaur egun, hori dena pribatua da eta honekin lortuko dugu zona hori dena publikoa izatea. Atzietara biziberritzearekin eta Kaxkoari ere beste zabalpen bat ematearekin batera. Eta garapen honek badu hori helburu.

Horregatik, hau guztia erantzunez.

Honekin batera, berdin, behin-behineko onarpena da, onarpenak behin-betikoa izan behar du, tartean pentsatzen dut 30 eguneko erakusketa publikoan jarriko dela eta hor hemendik aurrera tramite guztiek dagokion partaidetza izango dute.

Bozkatzera pasako gara. Arau subsidiarioen hirugarren aldaketa puntualaren behin-behineko onarpenaren aldeko botoak? EH Bildu udal taldearenak. Kontrako botoak? EAJ eta Euskal Sozialistak udal taldeenak. Eta abstentzioak? Elkarrekin-Podemos udal taldearenak. Hortaz, behin-behineko onarpena eman diogu. Honekin publikatzen denetik agerkari ofizialean, 30 eguneko epea izango da alegazioak egiteko.

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	11	<ol style="list-style-type: none"> 1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. 2. Itsaso Lekuona Legorburu. 3. Patxi Iburguren Echeverria. 4. Ainara Atorrasagasti Urizar. 5. Aitor Lukas Solano. 6. Asier Mingo Arruabarrena. 7. Amaia Miner Canflanca. 8. Aitor Huizi Izagirre. 9. Urko Lazkoz Fernandes. 10. Oier Agirresarobe Lizaso. 11. Miren Kistiñe Rodriguez Polaina.
KONTRA	8	<ol style="list-style-type: none"> 1. Andoni Amonarraiz Gómez. 2. José Antonio Cuesta Solé. 3. Blanca Alberro Aranzasti.

		4. Miryam Vazquez Vecino. 5. Mikel Gurutzeaga Zubillaga. 6. Ismael Ganchegui Gonzalez. 7. Ricardo Crespo Rubio. 8. María Jesús Ruiz Ochoa
ABSTENTZIOAK	2	1. Jaione Aristregui Cao. 2. Lurdes López Gorrotxategi.

OSOKO BILKURAK HARTUTAKO ERABAKIA

I.- AURREKARIAK

1) 2011ko apirilaren 11n egindako osoko bilkuran, Hernaniko Udalak erabaki zuen behin betiko onartzea Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina. (2011ko maiatzaren 13ko GAOn argitaratua).

2) Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko urriaren 03an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

“BAT.- Hernaniko Udaleko Hirigintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren 3. aldageta puntuala formulatzea.

BI.- Aldaketa hau aurrera eramateko parte hartze programa onartzea eta bere edukia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzea.

HIRU.- Ingurumen-ebaluazioari hasiera emateko eskabidea egitea eta ingurumen-dokumentu estrategikoa, plan orokorraren aldageta dokumentuarekin batera, ingurumen-organora bidaltzea.

LAU.- informazioa eskatzea Eusko Jaurlaritzan eta Gipuzkoako foru-aldundian babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta natur-guneen alorreko eskumenak dituzten organoei, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta natur-guneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko. Informazio hori emateko, bi hilabeteko epea egongo da, eta justifikazio tekniko eta juridikoarekin batera emango da.”

3) Herritarren Parte hartze programa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2024ko azaroaren 13an. 2025eko martxoan Herritarren Parte hartze programaren aldageta onartu zen. Herritarren lehen parte hartze ekitaldia martxoaren 20an burutu zen eta bertan jasotako txostena Arau Subsidiarioen 3. Aldaketa Puntualaren III ERANSKINEAN jaso da.

4) Genero eraginaren txostena egin da eta honako jarraibide hauek ezartzen ditu: Genero-eraginaren ebaluazio-prozesuan Udaleko Hirigintza eta Berdintasun Sailek hartu beharko lukete parte, elkarri aholkularitza eskainiz. Prozesua amaitzeko, pauso hauek ematea gomendatzen da:

- Hirigintza Sailak: Proiektuaren sustatzaile edo arduradun den heinean, Genero-Eraginaren Txostena prestatzea: nahikoa litzateke agiri labur bat idaztea, dokumentu hau eranskin gisa jarritz.

- Berdintasun Sailak: Hirigintza Saila prestatzen ari den txostena aztertu ondoren, Egiatzapen Txostena idaztea: bertan jaso ditzake proiektua hobetzeko ohar edo eta iradokizun gehigarriak.

- Hirigintza Sailak: Genero-Eraginaren Txostena amaitzea, Berdintasun Sailak proposatutako neurriak txertatuz hala badagokio, eta txertatzen ez direnak behar bezala justifikatu.

5) Hizkuntza eraginaren irismen txostena ere egin da. Txosten horren arabera, ez dago hizkuntzaren eraginaren azterlana egin beharrik.

6) 2025eko urtarrilaren 24an, Hernaniko Udaleko erregistroan (7379. zk.) sartu zen Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren ebazpena, Hernaniko plangintzako arau subsidiarioen 3. aldaketa puntualaren ingurumen-txosten estrategikoa formulatzen duena. Txosten horrek adierazten du aldaketa puntual horrek ingurumenean ez duela ondorio nabarmenik. Dokumentu hori Arau Subsidiarioen 3. Aldaketa Puntualaren dokumentuari erantsi zaio I. ERANSKIN gisa, eta haren edukia haren parte da, bereziki bertan ezarritako babes- eta zuzenketa-neurriak, izaera arauemailea izango dutenak.

7) 2024ko abenduaren 11n Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Garapeneko eta Lurralde Oreekako Zerbitzuak Hernaniko Arau Subsidiarioen 3. aldaketa puntualak nekazaritzako sektorearengan duen eraginaren inguruan egindako txostenari sarrera eman zitzaion udal erregistroan (11691 zenbakia). Txosten horretan ondorioztatzen da, Hernaniko Arau Subsidiarioen (AASS) 3. aldaketa puntualak ez duela eraginik izango lurzoru hiritarrezinean; hau da, gauzatu nahi den aldaketak ez dakar nekazaritzako lurren galerarik.

8) 2025eko otsailaren 6an Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren txostenari sarrera eman zitzaion udal erregistroan (1288 zenbakia). Txosten horretan Hernaniko Arau Subsidiarioen (AASS) 3. aldaketa puntualak kontuan izan beharreko arloak aipatzen dira.

9) 2025eko martxoaren 25ean, Hernaniko Osoko Bilkurak honako erabaki hau hartu zuen:

"BAT.- Hernaniko Udaleko Hirigintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren 3. aldaketa puntualari hasierako onarpena ematea.

BI.- Erabaki honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta udal-mugarteko egunkaririk zabalduenetako batean edo batzuetan argitaratuko du eta Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren 3. aldaketa puntualaren dokumentua 45 egun baliodunen epean jendaurrean jarriko du, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera.

HIRU.- Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren 3. aldaketa puntualaren edukia Udal web orrialdean argitaratzea informazioa emateko soilik.

LAU.- Sektoreko eskumenak dituzten administrazio publikoei hasierako onepenen berri ematea eta dokumentua bidaltzea, txostena egin dezaten.

BOST.- Hernanirekin mugakide diren udallerriei Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren 3. aldaketa puntualaren hasierako onarpenaren berri ematea.

SEI.- Hasierako onepen-dokumentua eta ingurumen-azterketa estrategikoa bidaltzea aldeztu aurretik kontsulta egin zaien eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei, 45 egun balioduneko epean txostenak eta egokitzat hartzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

ZAZPI.- Etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako organoaren baimena eskatzea, plangintza orokorrean lehendik zeuden eta hirigintza-plangintzan sartu behar

diren zuzkidura bizitokien erreserbak nahikoak direla justifikatzeko, 45/2025 Dekretuaren 19 artikulua xedatzen duena kontuan izanda.”

10) 2025eko apirilaren 14an, hasierako onespeneren erabakia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (71. zk.), aurreko aurrekarian adierazitako edukiarekin. Prentsa idatziari dagokionez, iragarkia DVn eta GARAn argitaratu zen 2025eko apirilaren 14an, eta BERRIAN 2025eko apirilaren 11n.

11) Hasierako onespeneren dokumentua eta ingurumen-azterketa estrategikoa bidali zitzaizkien alde aurretik kontsulta egin zitzairen eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei, 45 egun balioduneko epean egokitzen jotzen zituzten txostenak eta alegazioak egin zitzaizkien.

12) Hernaniko udalerrri mugakideei jakinarazi zaie Hirigintza Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren testu bateginaren 3. aldaketa puntualaren hasierako onarpena.

13) 2025eko maiatzaren 6an, baimena eskatu zitzaion Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailari hirigintza-plangintzan sartu behar diren plangintza orokorreko zuzkidura-bizitokien erreserbak nahikoak direla justifikatzeko, 45/2025 Dekretuaren 19. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta.

14) 2025eko maiatzaren 8an, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren Abiazio Zibilaren txostena sartu zen udal-erregistroan (2025-4774 zk.).

15) 2025eko maiatzaren 28an, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren txostena sartu zen udal-erregistroan (2025-5567 zk.). Txosten honetan proposatutako zuzketak 4. atalean sartu dira, Dokumentuaren Arau Bereziatan. Zehazki, 4.1 (HH) LI.03, Babeserako irizpideak, katalogatutako ondarea; 4.3 (HE) HS.01 Babeserako irizpideak, katalogatutako ondarea eta 4.4 eremuetako arau partikularretan. (HE) HS.03 Babeserako irizpideak, katalogatutako ondarea.

16) 2025eko ekainaren 19an, Arau Subsidiarioen 3. aldaketa puntualari buruzko alegazio-idazki bat sartu zen udal-erregistroan (2025-6613 zk.), Idurre Alfonso Etxabek eta beste hainbatek sinatua.

Alegazio hauei erantzun emateko txosten bat idatzi du Hirigintza eta Ingurumeneko Saileko arduradunak eta txosten honi atxikitzen zaio.

17) Herritarrek parte hartzeko bigarren saioa uztailaren 14an egin zen, eta txostena, arau aldaketa dokumentuaren III. ERANSKINEAN sartu da.

18) Plangintzako Aholku Batzordea. 2025eko irailaren 18an, Plangintzako Aholku Batzordearen Osoko Bilkura bildu zen, arau subsidiarioen aldaketa puntual honi buruz hitz egiteko. Kontseiluak aldeko txostena eman dio Hernaniko Hirigintza Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren testu bateginaren 3. aldaketa puntualari.

II.-ALDAKETA PUNTUALAREN XEDEA ETA LEGEZKOTASUNA

Aldaketa puntual honen xedea eta legezketasuna, haserako onarpenerako, 2025eko martxoaren 17an sinatutako txostenean, adierazten dira. Beraz txosten horretan jasotakoa berresten da.

III.- ALDAKETA PUNTUALAREN IZAPIDETZEA

2/2006 Lurzorua eta Hirigintza Legearen 90.6 artikulua honako hau xedatzen du:

“6.- Jendaurreko erakustaldiaren emaitzak ikusita, udalak behin-behingo onartuko du plan orokorra, bidezko iritzitako egokitzapenak eginda. Dena den, egokitzapen horiek hasieran aurreikusitako egiturazko antolamenduaren funtsa aldatzen badute, udalak hasierako onespenera eman beharko dio berriz planari eta jendaurreko erakustaldia irekiko du berriz, behin-behingo onartu aurretik.”

Kasu honetan, sartu diren egokitzapen bakarrak, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren txostenean jasotako lege erreferentziak eguneratzea izan da. Ondorioz ez dute inondik ere antolamenduaren funtsa aldatzen.

Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen 46/2020 Dekretuak, berriz, honako hau xedatzen du:

“28. artikulua.- Hiri-antolamenduko plan orokorraren behin-behineko onespenera

1.- Jendaurreko informazioaren eta kontsulten emaitza ikusi ondoren, udalak plan orokorraren proposamena egingo du plan hori behin-behinean onesteko egokitzat hartzen diren aldaketekin. Hala ere, aldaketa horiek hasieran aurreikusitako egitura-antolamenduan aldaketa handia egitea eskatzen badute, udalak berriz ere hasierako onarpenera ematea eta jendaurrean jartzeko beste aldi bat irekitzea erabakiko du behin-behineko onarpenera eman aurretik. Arabari dagokionez, udalak behin-behineko onespeneraren erabakiaren berri emango die udalerriko administrazio-batzarrei, eta, horretarako, erabakiaren edukia bidaliko die.

2.- Hiri-antolamenduko plan orokorraren dokumentua behin-behinean onetsi ondoren, udalak aldi berean igorriko du:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordera, txostena egin dezan hiru hilabeteko epean.

b) Ingurumen-organora, espedientearen kopia oso batekin, ingurumen-adierazpen estrategikoa egin dezan eskatuz. Adierazpen hori bi hilabeteko epean egin beharko da, espediente osoa jasotzen denetik hasita.

3.- Dagokion udalari zuzenean jakinaraziko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak bere txostenaren berri, plana izapidetzen jarraitzeko.”

Kontuan hartu da Tokiko garapen batzordeak 2025eko irailaren 25eko bilkuran **GEHIENGOZ** emandako irizpena

Horiek horrela hau erabaki da **GEHIENGOZ** :

Lehena.- Idurre Alfonso Etxabek eta beste hainbatek aurkeztutako alegazioak osorik ezeste.

Bigarrena.- 2011ko apirilaren 11ko Hernaniko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren 3. aldaketa behin-behingo onartzea.

Hirugarrena.- Hernaniko Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren 3. aldaketa izapidetzen jarraitzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 90 eta 91. ataletan ezarritakoarekin bat etorrituz, eta, ondorioz, agiria Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari helaraztea, egin beharreko txostena egin dezan.

5. LEH.01 EREMUAREN PLAN BEREZIA. BEHIN-BETIKO ONARPENA.

Alkatea: Bosgarren puntura pasako gara. Hirigintza gaiekin jarraitzen dugu. LEH-01 eremuaren plan bereziaren, kasu honetan bai, behin-betiko onarpena ematea izango litzateke. LEH-01 eremuaren plan bereziaren behin-betiko onarpena Ainarak azalduko digu.

Ainara Atorrasagasti: Hau plan berezi bat da Txillida-Leku Museoan dagoen aktibitatea erregulatzeko eta eremuaren erabilera mugatzeko. Batez ere bermatzeko museoarekin lotutako erabilera bat besterik ezingo dela egin bertan eta orain arte ez delako hori dena ondo erregulatu. Hau da modu bat erregulatzeko.

Alkatea: Honen inguruan zerbait esateko? Ez badago ezer, zuzenean bozketara pasako gara. LEH-01 eremuaren plan bereziaren behin-betiko onarpenaren aldeko botoak? **Aho-batez onartzen da.**

OSOKO BILKURAK HARTUTAKO ERABAKIA

1.- AURREKARIAK

- I.- 2023/03/07an Plan Berezia aurkeztu zen. Era beran, beste dokumentu hauek aurkeztu ziren:
 - a) Ingurumen Eraginaren Azterketa eta zarataren azterlana.
 - b) Ingurumen ebaluazio sinplifikatua hasteko eskaerarako dokumentua.
- II.- 2023/03/15an Udalak txosten eskaera bidali zion Eusko Jaurlaritzako ingurumen organoari.
- III.- 2023/03/29an Udalak txosten eskaera bidali zion Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiari.
- IV.- Era berean, Udalak hauek eskatu zituen:
 - a) Udaleko euskara sailari hizkuntza eraginaren irismen dokumentua.
 - b) Udaleko berdintasun sailari generoaren eraginaren txostena.
- V.- 2023/04/05ean Udalak Eragin linguistikoa neurtzeko irismen dokumentua idatzi zuen; bertan, ondorioa izan zen ez zela egin behar hizkuntza inpaktuko azterlanik.
- VI.- 2023/06an Hernaniko berdintasun sailak txostena egin zion Plan Bereziari; bertan, hainbat zehaztapen gehitzea eskatu zen genero ikuspuntuaren aldetik.
- VII.- 2023/05/26an jaso zen Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren txostena, zortasun aeronautikoen ingurukoa. Txostena aldekoa da.
- VIII.- 2023/08/30ean jaso zen Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren ebazpena; bertan, Plan Bereziaren ingurumen-txosten estrategikoa dator. Txostena aldekoa da

eta, neurri zehatz batzuk ezartzea eskatzen badu ere, ez dio eragozpenik jartzen Plan Bereziaren antolaketari.

- IX.- Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko urriaren 26an egindako bilkuran, ZABALAGA LEKU SL-k sustaturiko LEH-01 Zabalaga eremuko Plan Bereziari haserako onarpena eman zion.

Plan Berezi honen haserako onarpena, honako baldintza hauekin egin zen:

*“I.- Gipuzkoako Foru Aldundiak eremua zeharkatzen duen bidegorria eta espaloien proiektua egikaritzeko beharrezkoak diren lursailak, jabeak erakunde honi laga beharko dizkio. **Betebehar hau araudian jaso beharko da.***

*II.- Behin betiko onarpenerako dokumentuan txertatu beharko dira ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren ebazpenaren bitartez (2023ko uztailearen 24koa) Zabalaga LEH.01 eremuko plan bereziari buruzko ingurumen-txosten estrategikoan ezartzen diren baldintzak.. Zehazki **planaren araudian artikulatu bat gehituko da** aipatu Ingurumen Txosten Estrategikoan adierazitako neurriak beteko direla xedatuko duena eta ebazpenaren kopia atxikiko da dokumentuan.”*

- X.- Hasierako onarpenaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2023ko azaroaren 21ean (224 zenbakidun alean), baita prentsa idatzian ere 2023ko azaroaren 21ean (Gara, Berria) eta zaroaren 23an (DV). Dokumentuaren eduki osoa udal web orrialdean argitaratu zen jendaurreko epe horretan.

Plan partzial hau jendaurrean egon da 20 egunetan azaroaren 23tik zenbatzen hasita.

- XI.- Jendaurreko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

- XII.- Dokumentuaren haserako onarpena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura Sailera bidali zen, txostena egin zezan Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratuak 94. artikuluan xedatutakoari jarraikiz (2006ko ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arauemaileaz onetsia). Txosten hau 2023ko azaroaren 17 erregistratu zen Hernaniko Udalean.

- XIII.- Dokumentuaren haserako onarpena URA agentziari ere bidali zitzaion txostena egin zezan. Txosten hau 2023ko abenduaren 12an erregistratu zen Hernaniko Udalean. **Dokumentuan jaso beharreko hainbat zehaztapen adierazten ditu.**

- XIV.- 2024ko uztailearen 29ean LHE.01 EREMUKO PLAN BEREZIA behin betiko onartzeko dokumentua erregistratu zen Hernaniko udalean.

- XV.- 2024/09/12ko bilkuran, Tokiko Garapen Batzordeak, Plan bereziaren dokumentuari behin behineko onarpena ematea erabaki zuen. Horrekin batera, espediente osoa EAEko Lurralde Antolaketarako Batzordeari bidali zitzaion, dagokion txostena egin zezan. Behin behineko onarpena ondorengo baldintzekin egin zen:

“Behin betiko onarpenerako dokumentuak (testu bateratua), udalean aurkezten den eguna arteko aurrekariaren laburpen bat jaso beharko du. Izapideak, jaso diren txostenak eta udal ezarritako baldintzak aipatuko dira.”

- XVI.- 2024/11/28an izandako bilkuran, EAEko Lurralde Antolaketarako Batzordeak espedientea informatu zuen. Bertan, espedienteari ez dio eragozpenik jartzen lurralde antolamenduko tresnetara egokitzeari dagokionez, baina, alderdi batzuk konpontzeko eskatzen du. Ebazpen hori Udalean, 2024/12/04an jaso zen.

XVII.- 2024/12/04an, era beran, beste txosten hauek aurkeztu zituzten Udaletxean:

- a) Ura Agentziaren txostena.
- b) Lurralde Oreak Berdeko Departamentuaren txostena.
- c) Kantauri Isurialdeko konfederazioaren txostena.

XVIII.- Azkenik, 2025/04/24an, Añarbak txostena bidali zuen, LEH.01 Zabalaga eremuan aurreikusten den garapen urbanistikoa egiteko behar diren baliabide hidrikoen eta azpiegitura hidraulikoaren eskuragarritasunari buruzkoa.

XIX.- 2025eko uztailaren 8an behin behineko onarpenaren ondoriozko txostenetan jasotako baldintzetara egokitu ondoren, dokumentu berria (Testu Bateratua) aurkeztu da dagokion behin betiko onarpena izapidetzeko.

2. LURRALDE ANTOLAKETARAKO BATZORDEAREN TXOSTENA

Jasotako txostena aldekoa bada ere, alderdi batzuk argitu eta konpontzeko baldintza dator. Alderdi horiek, orain aurkeztu den Testu Bateratuan sartu dira:

• BALDINTZA	• PLAN BEREZIA
<ul style="list-style-type: none"> • Mugaketa doitzeari dagokionez: justifikazioa eta ondoriozko hirigintza egokitzapena 	<ul style="list-style-type: none"> • Memoriaren A.3 atalean adierazi eta justifikatzen da azaleraren doitzea. Hori, gainera, udaleko zerbitzuekin kontrastatua eta onartua dago.
<ul style="list-style-type: none"> • Gehienezko lerroakadurak, Zabalaga errekatxoarekiko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Planaren A.7.5 atalean lerroakadura horiek adierazten dira (5 metroko jabari publiko hidraulikoa). Horrez gain, 12 eta 61. artikuluetan lerroakadura horri erreferentzia egiten zaio.
<ul style="list-style-type: none"> • Aparkalekua handitzeko aukerarekiko baldintzak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Planean adierazten da aparkalekua gauzatzeko dagokion proiektuaren izapidetzean, proposatutako handitzearen egokitasuna aztertuko dela, eta txosten sektorialek eskatutako baldintzekin bat datorren egiaztatuko dela.

Udal Arkitektoak 2025eko uztailaren 10ean egindako txostenaren arabera, orain aurkeztu den Testu Bateratuak erantzuna ematen dio EAEko Lurralde Antolaketarako Batzordeak eskatutakoari.

• ADMINISTRAZIOA	• BALDINTZA LOTESLEAK	• BETETZEA
1. URA AGENTZIA	Ur-hornidurari buruz Añarberen txostena eskatu beharko da.	Eskatu eta jaso da txostena.
2. LANDA GARAPEN ETA LURRALDE OREA BERDEA	Ontzat ematen du egitasmoa.	-
3. KANTAURI ISURIALDEKO KONFEDERAZIOAREN	- Ur-hornidurari buruz Añarberen txostena eskatu beharko da.	Eskatu eta jaso da txostena.

TXOSTENA.		
4. AÑARBE	<ul style="list-style-type: none"> - Goi sareari dagokionez, planak ez du eraginik saneamendu eta hornidura gaitasunean. - Lanak noiz hasi eta amaituko diren jakinaraziko da, hornidura eta isurketa berriak doitzeko - Ezingo dira saneamendura jaulki euri urak edo jariatze urak. - Sare guztiak bereizleak izango dira 	<ul style="list-style-type: none"> - Planaren A.7.4 atalean eta 52. artikuluan adierazten da aurretiaz komunikatuko dela hornidurak handitu behar direnean. - Planaren 51. artikuluan jaso da baldintza hori. - Azpiegituren inguruko i.05 planoan datoz sare guztiak, eta bertan jasotzen dira sare berriak bereizleak izango direla.

Udal Arkitektoak 2025eko uztailaren 10ean egindako txostenaren arabera, orain aurkeztu den Testu Bateratuak erantzuna ematen die goian aipatutako txosten sektorialetako baldintzei.

4. DOKUMENTUAREN EDUKIA

Udal Arkitektoak 2025eko uztailaren 10ean egindako txostenaren arabera, orain aurkeztutako LEH.01 Zabalaga eremuko Plan Bereziaren Testu Bateratuak jaso ditu EAEko Lurralde Antolaketarako Batzordeak eskatutako azalpenak.

Era berean, ondoren iritsi diren txosten sektorialetako baldintzak bete eta txeratu dira.

Aurkeztu den testu bateginak, Behin behineko onarpenean jarritako baldintza bete du, dokumentuak, udalean aurkeztu den eguna arteko aurrekarien laburpen bat jaso baitu. Izapideak, jaso diren txostenak eta udalak ezarritako baldintzak aipatuta.

Udal Arkitektoak 2025eko uztailaren 10ean egindako txostenaren arabera, ez zaio arazorik ikusten, hirigintzaren ikuspuntutik, behin behineko onarpenaren ondoren aurkeztu den "LEH.01 Zabalaga eremuko Plan Bereziaren" testu bateratuaren dokumentuari. Horrenbestez, 2/2006 Legearen 97. artikuluari jarraiki, proposatu egiten da behin betiko onarpena ematea.

5.- ESKUMENAK ETA IZAPIDEAK

Behin betiko onespena emateko organo eskuduna Osoko Bilkura da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.1 c) artikuluari jarraiki eta. Lege beraren 70.1 artikuluan xedatzenenez, *"Las ordenanzas, incluidas el articulado de las normas de los planes urbanísticos, así como los acuerdos correspondientes a éstos cuya aprobación definitiva sea competencia de los entes locales, se deben publicar en el "Boletín oficial de la Provincia" eta dioenez, hauek ez dira indarrean sartuko testu osoa argitaratu eta Lege bereko 65.2 artikuluan zehazturiko epea igaro arte.*

Plan Berezia onartzeko jarraituko den prozedura 2/2006 Lurzoru eta Hirigintza Legearen 95 eta 96 artikuluetan eta Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen 46/2020 Dekretuaren 31 artikuluan zehazturikoa da. Prozedura honako hau da:

- Aurkeztu de dokumentuaren behin betiko onarpena

- Argitaratu baino lehen dokumentua foru erregistrora bidaltzea
- Behin betiko onarpenaren testu osoa eta plan partzialaren arau urbanistikoak GAO argitaratu behar dira, indarrean sartzeko.
- Behin betiko onarpenaren testu osoa Gipuzkoan hedatze handiena duten egunkarietan argitaratuko da eta interesdunei jakinaraziko zaie, kasu honetan dokumentuaren sustatzaileei eta alegazioak aurkeztu dituztenei.

Kontuan hartu dira lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 legearen 95 eta 96. artikulua, baita 46/2020 Dekretuaren 31 artikulua ere.
Kontuan hartu da Tokiko garapen batzordeak 2025eko irailaren 25eko bilkuran GEHIENGOZ emandako irizpena

Horiek horrela hau erabaki da **AHO BATEZ**

LEHENA.- LHE.01 EREMUKO PLAN BEREZIA (testu bategina) behin betiko onartzea

BIGARRENA.- Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 89.3 artikulua xedatzen duena kontuan izanik, plan bereziaren aldaketa puntuan honen kopia bat Gipuzkoako Foru aldundira bidaltzea, Hirigintza Planeamenduko Erregistroan gordetzeko.

HIRUGARRENA.- Plan Bereziaren aldaketaren testu bateratuaren araudia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta onarpenaren iragarkia Gipuzkoan hedatze handiena duten egunkarietan argitaratzea.

LAUGARRENA.- Ebazpen hau eremuko jabeei, planaren sustatzaileei eta beste interesdunei jakinaraztea.

BOSGARRENA.- Plan bereziaren aldaketaren testu bateratua Hernaniko Udaleko Web orrialdean argitaratzea.

6. HERNANIKO LHI-10.7 SEKTOREKO ESTUBEGI INGURUAN JARDUERA EKONOMIKOEN SUSTAPEN PUBLIKOA EGITEARI BURUZKO HIRIGINTZA HITZARMENA AZKENDUTZAT EMATEA (GALARRETA) . BEHIN BETIKO ONARPENA.

Alkatea: Jarraian ere hirigintzako beste gai bat. Hernaniko LHI-10/7 sektoreko Estubegi inguruan jarduera ekonomikoen sustapen publikoa egiteari buruzko hirigintza hitzarmena, azkendutzak ematea eta honen behin-betiko onarpena.

Ainara Atorrasagasti: 2009an Hernaniko Udalak eta Buruntzaldeko industrialdeak hitzarmen bat sinatu zuten Galarreta-Estubegiko lurzoruak hartzeko. Hitzarmenean jasotzen zen lurzoruaren antolaketa, %15aren lagapena egitea eta udal zerbitzuko pabiloi bat han ematea. Baina indarraldia agortu da eta azkendutzat jo behar da. Orduan, proposatzen dena da 2009ko hitzarmen hori ofizialki amaitutzat ematea eta berez etorkizunean Galarreta-Estubegi sektoreko garapenak plangintzak ezarritako baldintza orokorrekin garatzea. %15a jasotzea. Berez baldintza orokorrak bermatzen dituenak.

Alkatea: Eskerrik asko, Ainara. Ez dakit honen inguruan zerbait aipatzeko... Bozketara pasako gara. Hernaniko LHI-10/7 sektoreko Galarreta inguruan hirigintza hitzarmena azkendutzat ematearen aldeko botoak? Aho-batez onartzen da.

OSOKO BILKURAK HARTUTAKO ERABAKIA

AURREKARIAK

I.- Hernaniko Udalaren eta BURUNTZALDEAKO INDUSTRIALDEA SAREN arteko hitzarmen proposamena Hernaniko Hirigintza Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Berrikuspenarako izapidetze-fasean sortu zen, hala, 2009ko urriaren 29an, Hernaniko Udalbatzak osoko bilkuran hitzarmena onartu zuen, eta ondoren, jendaurrean jarri zuen. Hitzarmenaren edukia 2009ko azaroaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu zen, 210 zenbakian. Urte bereko abenduaren 21ean aipatutako aldeek hitzarmena sinatu zuten.

Hitzarmenaren bidez jarduketaren hirigintza-araubidea zehaztu zen, eta Hernaniko Udalbatzak 2010eko urriaren 28an egindako osoko bilkuran, behin betiko onarpena eman zion Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuari 10 Eremuan (Galarreta) eta LH-23-5eko (Sorgintxulo) zati batean. Arau aldaketa honen edukia GAO-n argitaratu zen 2011ko otsailaren 1ean, 20 zenbakian.

II.- 2011ko martxoaren 31n Hernaniko Udaleko Osoko Bilkurak, behin betiko onartu zuen 10.7 Sektoreko Zatikako Planaren Testu Bategina.

III.- 2011ko apirilaren 11n behin betiko onartu zen Hernaniko Hirigintza Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Berrikuspena eta dokumentu honetan (HK) GA.07 izeneko sektorean, arestian aipatu Arau Subsidiarioen aldaketa puntualean xedatutakoa jaso zen.

IV.- 2012ko abuztuaren 2an, Beterri-kostako Industrialdea SA sortu zen, Zuatzu Enpresa Parkea, SAK, Buruntzaldeko Industrialdea, SAK eta Zarautzko Industrialdea, SAK bat egin ondoren. Ondorioz, Beterri-kostako Industrialdea SA, Buruntzaldeko Industrialdea, SAREN eskubide eta betebeharretan subrogatu da.

V.- 2013ko azaroaren 26an Hernaniko Udaleko Osoko Bilkurak, behin betiko onartu zuen (HK) GA.07 Sektoreko Zatikako Plana, hain zuzen ere 10.7 Sektorekoa aldatzen zuena.

VI.- 2014ko uztailaren 11n Hernaniko Tokiko Gobernu Batzarrak (HK) GA.07 Estubegi eremuko Urbanizatzeko Jarduketa Programa (UJP) behin betiko onartu zuen.

UJP horretan, hitzarmen-sistema ezarri zen (HK) GA.07 Estubegi eremuko kudeaketa gauzatzeko.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 160 artikulua araber:

1.- Udalak hitzarmen-sistema hautatu ahal izango du jarduketa-sistema modura, urbanizatzeko jarduketa-programa behin betiko onartzerakoan hala erabakitzen duenean, bere ekimenez edo lurzoruaren jabetzaren % 50 baino gehiagoren eskariz.

2.- Hitzarmen-sistemaz jardun ahal izateko, beharrezkoa izango da betiere hitzarmen bat sinatzea eta hitzarmen horretan gutxienez lurzoruaren jabetzaren % 50 baino gehiagok honako konpromiso hauek bere egitea:

a) Hitzarmen-batzarra osatzea hurrengo artikuluan aurreikusitakoaren araber.

b) Batzarraren bidez birpartzelatze-agiria egitea, jarduketaren onurak eta kargak ekitatez banatzeko.

c) Nahitaez eta doan laga beharrek lursailen eta ondasunen ekarpena egitea, legean, plangintzan edo hitzarmenean ezarritako bezala.

d) Jarduketa-unitateari legeak, plangintzak edo hitzarmenak izendatutako urbanizatzeko-karga guztiak bere kontura izatea eta urbanizatzearen, azpiegituren eta zerbitzuen obra guztiak egikaritzea.

Hitzarmenaren eduki zehatza udalak ezarriko du programarekin batera, interesdunek edo udal-administrazioak berak proposatuta.

3.- Hitzarmen-sistema plangintzak ezartzen duenean, premiazkoa izango da hitzarmen-batzarra eratzeko beharrezko diren jabeek aurreko paragrafoan araututako hitzarmen-proposamena

aurkeztea udalari, proposamena behin betiko onartu eta sei hilabeteko epean gehienez ere. Epe hori betetzen ez bada, jarduketa pribatuko sistemaren ordez lehiaketa-sistema erabiliko da lege honetan aurreikusitako eragile urbanizatzailea hautatzeko.

4.- Baldin eta, urbanizatzeko jarduketa-programan hitzarmen bidez jarduteko sistema ezarri zenetik bi hilabete pasa ondoren, behar den gehiengoarekin hitzarmenik sinatzen ez bada, udalak aldatu egingo du jarduketa-sistema, eta eragile urbanizatzailearen sistema edo egikaritze publikoko bat erabiliko du.

5.- Hitzarmen-batzarra eratzea ez da beharrezkoa izango eragindako lurrazal guztia jabe bakarrarena baldin bada. Orduan, jabeak bereganatuko ditu lege honek batzarrari ezarritako betebeharrak guztiak eta hitzarmena ere hark sinatuko du.

6.- Jabeek administrazioaren aurrean bereganatzen dituzten konpromisoei dagokienez, hitzarmenaren sinatzaileek urbanizatzeko-kargen zenbatekoaren % 7ren abala formalizatu eta entregatuz bermatuko dituzte konpromisook.

7.- Nolanahi ere, artikulua honetan berariaz xedatu gabeko guztian, lege honetan hirigintza-hitzarmenei buruz xedatutakoari lotuko zaio sinatutako hitzarmena."

Hitzarmen horretan, Hernaniko Udalak, Hernaniko Industrialdea SA sozietate publikoak Hernaniko Udalerriari esku har dezala ahalbidetzeko asmoz, konpromiso hau hartu zuen:

"Udalerriko Hirigintza Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Berrikusketaren Elementuen Aldaketa espedientearen (10. Eremuari -Galarreta dagokionez) onar dadila bultzatuko duela, horren bitartez, eta beste zehaztapen posible batzuen artean, ezarritako geratu dadin entitate horrek sustatu beharreko LHI-10.7 lurzoru hiritargarriko sektorearen mugaketa eta antolamendu berria, zeinen helburua jarduera ekonomikoaren garapena izango baita."

Hernaniko Industrialdea SA sozietate publikoak, besteak beste, konpromiso hauek hartu zituen bere gain:

"A) SUE-10/7 (Estubegi) lurzoru hiritargarriko sektorearen sustapenean eta exekuzioan parte hartzea, zeinen helburua jarduera ekonomikoa izango baita(industrialia).

B) Egin beharreko atze aurreko egitea LHI-10/7 sektorearen (Estubegi) lursail guztien eskualdaketa bakoitzeko baldintzak ezarriko dituzten dokumentuak lurzoru jabeekin formalizatzen saiatzeko edo, hala badagokio, lursail horiek Arau Subsidiarioen aldaketa espedientearen behin-behingo onartu baino lehen eskuratzeko.

C) LHI-10.7 sektorearen (Estubegi) antolamendu xehekatuen barruan lur zati eraikigarri bat gordetzea, Udal Zerbitzuak bertan berrikatutako modukoa, ezaugarri hauek izango dituena: 2.000 m²-ko azalera garbia eta 2.000 m²(t)-ko eraikuntza gaitasuna sestra gainean (bi solairuko pabiloia,bakoitza 1.000 m²(t)-koa) eta 1.000 m²(t) sestra azpian (sotoa eta erdisotoa). Lur zati hori ahal dela poligonoaren gizarbe-ekipamenduan kokatuko da.

(...)"

Aipatu hitzarmenaren laugarren eta seigarren estipulazioetan honako hau ere adostu zen:

"Laugarrena.- Hitzarmen honen gai diren ekintzen helburua kontuan hartuta, haien interes publiko eta sozial garbia kontuan hartuta, Hernaniko Industrialdea SA sozietatearen izaera guztiz publiko kontuan hartuta, hitzarmen honen ondorioetarako Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazio Orokorren erakunde instrumental gisa parte hartzen baitute, eta operazioaren emaitzetan helburu espekulatibo edo lukratiborik ez dagoela kontuan hartuta, aldeek hitzartzen eta ituntzen dute, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 212006 legearen 118.a) eta 115.c) artikuluek xedatutakoaren arabera, Hernaniko Udalak doan lagatuko diola Hernaniko Industrialdea SAri LHI-1.017 sektoreari (Estubegi) dagokion exekuzio unitatean sartuta dauden sozietate publiko horren jabetzako lurrei esleitutako hirigintza-eraikigarritasun haztatuen %15a gauzatzen den lur zatien edo lur zatien jabetza. Aprobetxamendu hori, indarrean dauden lege xedapenen arabera, eta aplikatutako jarduketa sistema dena delakoa, Lurzoruaren Udal Ondarekoa izango da, aipatutako exekuzio unitateen Kudeaketa Egitasmoaren behin betiko onarpenaren ondorioz.

Ondare lagapen horren helburua izango da sustapeneko edo interes publikoko jarduera ekonomikoetarako lur zorua eskuratzea, ekainaren 30eko 212006 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoari dagokionez erregelamenduz nola definituta geratzen diren.

Lagapenaren formalizazioa berdinbanaketa egitasmoan egingo da Hernaniko Industrialdea SA sozietatearen alde."

"Seigarrena.- Hitzarmen honen laugarren eta bosgarren estipulazioetan zehaztutako lagapenen konpentsazio gisa, zeinen onuraduna Hernaniko Industrialdea SA izango baita, sozietate horrek Hernaniko Udalari emango dio, karga guztietatik libre, urbanizatutako eta eraikitako finka bat, gaur egun Florida auzoan dauden udal zerbitzueta instalazioak ber[an jartzeko, indarrean dagoen planeamendu orokorraren ondorioz antolamendutik kanpokotzat deklaratuak baitaude. Hona hemen finka horren ezaugarriak:

- 2.000 m²-ko azalera pribatuko lur zati urbanizatu, LHI-10/7 sektorean kokatzekoa. Inguru guztian itxitura izango du eta eraikita ez dagoen lurzorua zolatua egongo da.

- Industri pabiloia: sestra gainean BI solairu, bakoitza 1.000 m²-koa, eta sestra azpian solairu bat, 1.000 m²-koa (sotoa edo erdi sotoa). Hau da, pabiloiaren azalera eraikia, guztira, 3.000 m²(t). Exekuzio materialeko gehieneko aurrekontua: milioi bat eta ehun mila euro (1.100.000 euro). Kopuru hori, dena dela ere deskribatutako pabiloia eraikitzearen azken kostua, Hernaniko Industrialdeak kontzeptu horrengatik ordainduko duen gehienekoa izango da, eguneratu egingo da hitzarmen hau sinatu eta obrak egiteko lizentzia eskuratzen den artean KPIk duen igoeraren arabera. Eraikinak izango du: estalkia, fatxada, fatxadako arotzeria baoak eta zerbitzuko sare orokorretarako hargune guztiak, Hernaniko Udalak emango duen eraikuntza egitasmoaren arabera. (Pabiloiaren barruko aldea egokitze lanak, eta pabiloiaren exekuzioa bukatzeko beharrezkoak direnak, Hernaniko Udalaren konturakoak izango dira baldin eta horien azken kostua milioi bat eta ehun mila euro baino gehiagokoa bada (1.100.000 euro).

Finka eraiki honek Hernaniko Industrialdea SAk sustatuko duen sektorean izango duen kokapena eta entregatzeko epea sozietate horrek eta Hernaniko Udalak elkar hartuta erabakiko dituzte. Dena dela ere, lehentasuna izango du zerbitzu horiek gizarte-ekipamendurako erabiliko den lur zatian kokatzea."

VII.- Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025 uztailaren 24ean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

"LEHENA.- Prozedura abiaraztea LHI-10-7 Sektoreko -orain (HK)GA.07 sektorea- garapenerako Buruntzaldeako industrialdea, SArekin sinatutako hirigintzako hitzarmena, indarraldia igarotzeagatik, azkendutzat emateko.

BIGARRENA.- Hamabost eguneko entzunaldia ematea Beterri-kostako Industrialdea, SArri egoki irizten diren alegazioak aurkez ditzaten.

HIRUGARRENA.- Adieraztea, batetik, hitzarmena azkendutzat ematearen ondorioz (HK) GA.07 Sektoreko antolamenduko zehaztutako gauzatzeak jarduketa integratuaren betebeharrak gisa ekarriko duela zatikako planak aurreikusten dituen hiri-lurzoruko tokiko zuzkidurak lagatzea eta, bestetik, aprobetxamenduaren % 15eko lagapena kargarik gabea izango dela 2/2006 Legeak xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA.- Erabaki horren berri ematea interesdunei."

VIII.- 2025eko uztailaren 29an jakinarazi zitzaion BETERRI INDUSTRIALDEA SArri aurreko erabakia. Emandako aditze epean ez da alegaziorik aurkeztu.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I.- Hirigintza-hitzarmenen izaera eta aplikazio-araubide juridikoa

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko zazpigarren xedapen gehigarrian arautzen dira hirigintza-hitzarmenak, aurreikusiz, besteak beste, toki-entitateek hitzarmenak egiteko ahalmena, elkartuta edo banan-banan, pertsona publikoekin edo pribatuekin, pertsona horiek laguntza eman dezaten hirigintza-jarduera modurik onenean eta eraginkorrean garatzeko.

Aipatutako xedapenean, hirigintza-hitzarmenek izaera juridiko-administratiboa dutela azpimarratzeaz gain, kontratu izaera ere badutela ondorioztatzen da honako hau adieraziz:

"Akordioa bete-betean dagoela iritzi zaio eskaintza egin eta hitzarmenaren gaia onartzen denean, nahiz eta gainerako baldintza formalak ere bete beharrekoak izango diren".

Argi islatzen da ere hitzarmenen izaera administratiboa zein kontratuzkoa Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 25.1.b) artikuluan:

"1. Administrazio-izaera izango dute kontratu hauek, administrazio publiko batek egiten baldin baditu:

(...) b) Lege batez horrela berariaz deklaraturakoak, bai eta aurreko letran adierazitakoak beste objektu bat duten beste batzuk ere, Administrazioarentzat izaera berezia daukatena, Administrazio kontratatzailearen berariazko igorpen nahiz trafikoari lotuta daudelako, edo Administrazioaren berariazko eskumeneko helburu publikoren bati zuzenean edo berehala erantzuteko direlako".

Hirigintzako hitzarmenen kasuan, eztabaida ezina da erakunde publikoek funtzio publiko bat garatzen dutela beren eskumen eskusiboko hirigintza-plangintzarako ahala erabiliz.

Hitzarmenen aplikazio-araubide juridikoari dagokionean, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 25.2 artikuluan adierazten denez, administrazio-kontratuen prestaketa, adjudikatzea, ondorioak, aldaketa eta azkentzea lege horren eta bera garatzeko xedapenean ezarritakoaren arabera egingo dira; eta, horien ordezkari modura, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, horiek ez, zuzenbide pribatuko arauak. Hala ere, adierazitako artikulua berariaz adierazten du 25.1.b) artikuluan aipatzen diren administrazio-kontratu berezietan (horrelakoak dira hirigintza- hitzarmenak) haien arau espezifikoak aplikatuko zaizkiela lehenbizi.

II.-Administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriari buruzko legeriako administrazio-hitzarmenak

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko atariko tituluan (47-53 artikulua), administrazio-hitzarmenen araubide osoa garatzen da eta gutxieneko edukia, motak, iraupena eta azkentzea finkatzen dira.

Kontuan izanik aipatutako Legearen 47. artikulua, hitzarmenek honako ezaugarri hauek dituzte:

1) administrazio publikoen eta zuzenbide pribatuko subjektu baten arteko akordioak dira, xede komun bat lortze aldera eginikoak; 2) ezin hartu ditzakete xedatutako kontratuen berezko prestazioak; eta, 3) SPKLren arabera araubide juridikoa daukate.

Hitzarmenen iraupenari dagokionez, berriz, 40/2015 Legeko 49.h) artikulua honako hau adierazten du:

Hitzarmenaren indarraldia, erregela hauek kontuan hartuta:

1-a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeago aurreikusten ez den arau bidez.

2-a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea".

Aipatutako horiez gain, 40/2015 Legeko zortzigarren xedapen gehigarrian adierazten da administrazio publikoek sinatutako hitzarmenak hiru urteko epean egokitu behar direla, legea indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita (azken xedapenetako hemezortzigarrenaren arabera, 2015eko urriaren 2an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen).

Baina hitzarmen administratiboan epeari buruzko auzia ez da hor amaitzen, legegileak zortzigarren xedapen gehigarrian bertan ezartzen baitu 40/2015 Legea "automatikoki" egokitzeko beharra:

"Hala ere, hitzarmenaren indarraldiari dagokionez, automatikoki egokituko dira, 49.h). 1.a artikuluan aurreikusitako erregelak zuzenean aplikatuz, indarraldirik zehaztuta ez duten hitzarmenak edo indarraldi bat zehaztuta edukita ere lege hau indarrean jartzean iraupen mugagabeko isilbidezko luzapen bat ezarrita duten hitzarmenak. Kasu horietan, hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa izango da, lege hau indarrean jartzen denetik aurrera".

Hortaz, antzeman daitekeenez, lau urteko epea ezarri zaie Legea indarrean sartu aurretik sinatutako hitzarmenei, horien iraupena zehaztu gabe badago. Beraz, aintzat harturik orain arte adierazitakoa, esan daiteke 40/2015 Legeak, 49.h) artikulua bidez, hitzarmenen iraupena lau urtean ezartzen dela, nahiz eta jarraian zehazten den arau bidez epe luzeagoa aurreikusi ahal izango dela, eta, era berean, epe bera luzatu daitekeela beste hainbeste. Ondorioz, adieraz daiteke hitzarmenaren indarraldiaren gehieneko epea arau bidez ezarrita dagoen kasuetan, 40/2015 Legearen denboramuga (lau urte) subsidiarioa izango dela.

III.- 40/2015 Legearen aplikagarritasuna LHI-10-7 Sektoreko (GALARRETA) hirigintza-hitzarmenean. Gaur egun (HK) GA.07 Sektorea.

Kontuan izanik aurreko puntuan adierazitakoa, beharrezkoa da zehaztea ea udalak 2009. urtean **LHI-10-7 Sektoreko** hirigintza-antolamendurako sinatutako hitzarmena 40/2015 Legeak ezarritako indarraldi-araubide mugatuaren eraginpean ote dagoen.

Honela, aintzat harturik hitzarmenaren izaerari eta azkentzearen araubide juridikoari buruz azalduetakoa, ondoriozta daiteke hitzarmena azkendutzat jotzeko zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak betetzen direla, indarraldia amaitu bai baita, eta hori hitzarmena suntsiarazteko arrazoia da, lege beraren 51. artikulua arabera.

Ez da uste beste interpretazio bat egin daitekeenik, izan ere, hirigintzako araudiak eta kontratu-araudiak ez dute epeari buruzko inolako preskripziorik ezartzen eta hitzarmenak berak ere ez; beraz, 40/2015 Legeak bete behar du hutsunea.

IV.- Hirigintzako hitzarmena azkendutzat emateko prozedura abiarazteko organo eskuduna.

Plangintzako hitzarmena izanik, hitzarmena azkendutzat ematea udalbatzari dagokio, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, 22.2 c. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontuan hartu da Tokiko garapen batzordeak 2025eko irailaren 25ean, aho batez emandako irizpena Aurreko guztia ikusita, kontuan hartuz espedientean jasota dauden txosten juridikoak, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren,

Horiek horrela Osoko bilkurak **aho batez erabaki du:**

LEHENEA.- Azkendutzat ematea LHI-10-7 Sektoreko -orain (HK)GA.07 sektorea- garapenerako Buruntzaldeako industrialdea, SArekin 2009ko abenduaren 21ean sinatutako hirigintzako hitzarmena, indarraldia igarotzeagatik.

BIGARRENA.- Berrito adieraztea, batetik, hitzarmena azkendutzat ematearen ondorioz (HK) GA.07 Sektoreko antolamenduko zehaztapenak gauzatzeak jarduketa integratuaren betebeharrak gisa ekarriko duela zatikako planak aurreikusten dituen hiri-lurzoruko tokiko zuzkidurak lagatzea eta, bestetik, aprobetxamenduaren % 15eko lagapena kargarik gabea izango dela 2/2006 Legeak xedatutakoaren arabera.

HIRUGARRENA.- Erabaki horren berri ematea interesdunei.

7. 2026KO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.

Alkatea: Hirigintza gaiak alde batera utzi eta ogasun kontuetara pasako gara. Urtero iraileko plenoan ordenantza fiskalen gaia ekartzen dugu. Datorren urterako zerga tasa eta prezio publikoak ezartzea. Orain dela bi aste antolakuntza batzordean aipatu genituen, proposamen bat zabaldu genuen, tartean udal talde desberdinek aztertzeke, eta pasa den asteko antolaketa batzordean jada diktaminatu genuen proposamen desberdinekin.

Ordenantza luzea da, puntu asko daude, ez ditut puntuz puntu denak aipatuko. Egingo dudana da esanguratsuenak direnak aipatu. 2026 urterako zerga eta tasen %3ko igoera orokorra proposatzen dugu. Hori da iaztik aurtena KPIak izan duen igoera eta bada azken urteetan Hernaniko Udalean mantentzen ari garen bidea. KPIak izaten duen igoera ere zerga eta tasetan aplikatzea. Hala ere, salbuespen batzuk izango dira. Igoera orokorra %3koa, baina salbuespen batzuk: bat, ondasun higiezinaren gaineko zergaren salbuespen bat, izan ere, 2025eko ordenantzaren akats bat egon zen eta plenoan igoera onartu bagenuen ere, aldizkari ofizialean argitaratu zen testua gaizki zegoen eta igoera hori ez zen aplikatu. Hortaz, urtean zehar Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hizketan aritu gara baina ez zegoen hori zuzentzeko aukerarik; beraz, hemen planteatzen duguna da 2025eko eta 2026ko igoerak, biak batera aplikatzea. Beraz, kasu honetan %6a izango litzateke, baina azken batean emaitza bera da. Bigarren salbuespena hondakinen tasan.

Hau iaz ere ekarri genuen. Legedia dela eta zero defizitera iritsi behar den arauekin iaz adostu genuen udal taldeen artean igoera progresiboak egingo genituela eta urtean %30eko igoera aplikatuko genuela. Iaz %30ekoa aplikatu genuen eta aurtengo 2026rako %30ekoa aplikatzeko proposamena da, iaz adostu genuen bezala, hondakinen bilketaren kasuan. Hirugarrena, Biteriko prezio publikoetan, sarreretan. Kasu honetan portzentajearen igoerarekin, gero zentimoekin ez ibiltzeko, hainbat urteren ondoren egiten dira igoerak, prezioak borobildu egiten dira eta azken igoera duela urte batzuk izan zen. Azken urteetan ez da igoerarik egin eta hemen ere borobiltze bat egin da prezio justuak ateratzeko. Laugarren salbuespena Zerbitzu Sozialetako zerbitzuetan. Hauetan ez dugu igoerarik aplikatuko, batetik, batzuk Gipuzkoako Foru Aldundiaren hitzarmenarekin lotuta daudelako, eta beste kasu batean, hainbat zerbitzutan erabiltzaileen diru-sarreraren arabera direlako tasak. Diru-sarrerak bermatzeko errentan igoera batzuk izan direnez eta diru-sarreraren arabera ordaintzen dituzten zerbitzu horiek, beraien ordainketan igoera ere izan da. Hortaz, igoera hori izan denez, beste igoerarik ez dugu aplikatuko tarifa hauetan.

Beste salbuespen bat, orain arte Hernaniko kiroldegiko abonatuentzat saunak izan du prezio bat aparte ordaindu beharrekoa eta orain abonatuentzat doakoa izatea erabakitzen dugu sauna zerbitzua. Auzo baratzeen kanona igotzea. Auzo baratzeak martxan jarri zirenetik kanona bera izan baita. Urte asko, baina mantentze lanak izaten dira eta 60€tik 100€ra pasatzea proposatzen da. Eta tasa berri bat sortzea Ugaldetxoko aisialdi eremuan. Hor orain dela urte batzuk antolaketa lan bat egin zen, erreserba sistema bat jarri zen hura pixka bat ordenatzeko. Ugaldetxora errekara

zihozenak aparkatu ahal izateko modu ordenatu batean, erreserba bitartez; eta horri ere tasa bat sortzea, horrek ere gune hori mantentzeak etab. bai baitu bere inbertsioa.

Eta, azkenik, etxebizitza gune tentsionatuarekin lotuta datorren kontu bat, etxebizitza hutsen errenergua. Hernaniko Udalak %100eko errenergua aplikatzen du, Aldundiak ahalbidetzen du %150eko errenergua aplikatzea. Guk, gaur gainera prentsan atera da datozen hilabeteetan Espainiako ministeritzak Hernani izendatuko duela eremu tentsionatu. Eta eremu tentsionatu izendatu ahal izateko egin genuen ekintza-plan horretan, neurrietako bat hau zen: etxebizitza hutsei errenergua handitzea eta, bestetik, alokairuan Biziguneren bitartez jartzen ziren etxebizitzei %99ko hobaria mantentzea. Hori martxan daukagu.

Beraz, batetik, hutsei errenergua igotzen zaie, baina mantentzen da, eta hau ere garrantzitsua da, Biziguneren bitartez alokairu sozialean jartzen diren etxe horien jabeei, etxe horren ondasun higiezinaren gaineko zergan %99ko hobaria mantentzea. Hau bada, esan bezala, etxebizitza gune tentsionatuen ekintza-planean dagoena. Eta etxebizitza merkatuan eragiteko eta mugimendua egoteko neurri bat.

Hauek aldaketa edo nabarmentzekoak diren puntuak.

Erronda irekiko dugu.

Ricardo Crespo: Gu abstenitu egingo gara, nahiz eta gauza batzuekin ados egon, beste batzuekin ez baikatuz bat. Bi adibide jarriko ditut.

Pasa den urtean hondakinen tasa %30 igo genuen eta bertan, baita ere, esan genuen ez geundela ados. Nahiz eta jakin legeak horrela behartzen gaituela, uste dugulako urteak izan direla non horren kudeaketa ez den izan, izan behar zuen adinako efizientea. Aurretik egin ez genuena dakarkigu arrastaka. Orduan, kudeaketa ez da ona izan.

Baina baita ere jartzen da, eta hau ere batzordean horrela azaldu nuen, Ugaldetxoko tasa horren harira, lekua erabiltzeagatik tasa hori... Eta, gainera, eta horrela azaldu nuen batzordean ere eta plenoan ere hala esango dut, espero dut hau ahalbidetzea txotx garaian etortzen zaizkigun autobus gutzi horiei ere, nahiz eta beste leku batean izan, halako tasaren bat jartzea.

Alkatea: Mikel, barkatuko didazu, puntu garrantzitsu bat delako eta badakidanez erreferentzia egingo diozula... Aipatzea ahaztu zait trazio mekanikoko ibilgailuen gaineko hobariak, orain dela urte batzuk jarri genituen hobariak martxan ibilgailu hibrido eta elektrikoentzat. Hobari horiek kentzea proposatzen dugu bi arrazoiengatik: hobariak zentzua daukatelako zerbait berria denean eta indartu behar denean, eta hori martxan jarri genuen garaian izan zitekeen, oraindik elektriko gutxi zeuden eta hibridoak ere gutxi. Eta, bestetik, hobariaren funtzioa bada behar gehiena dutenak mesedetzea. Eta badakigu ibilgailu hibrido eta elektrikoak erosteko aukera dutenak bitarteko ekonomiko batzuk badituztela, hemengo tasak ere ordaintzeko.

Garrantzitsua iruditzen zitzaidan, barkatu moztea.

Mikel Gurutzeaga: Bai, hain justu puntu honi buruz neukan esatekoa, baina baita ekonomia jardueren gaineko zerga kokapen indizeari dagokionez ere. Azaltzen baduzu, orduan nik gero jarraituko dut.

Alkatea: Barkatu, bai, gaur eduki asko dauzkat eta ahaztu egin zait.

Zerrenda horretan jarduera ekonomikoen gaineko zerga aipatzen da. Badakigu Gipuzkoan milioi batetik gora fakturatzeko enpresek ordaindu behar dutela zerga hau. Zerga tipoak udalak ezartzen ditu, beti ere Aldundiak jartzen dituen mugen barruan. Aldundiak aukera bat ematen du: enpresa kokatuta dagoen lekuaren arabera tipo desberdina aplikatzea. Ulertzen delako norberaren negozioan eragina daukala non dagoenak, leku batean egon edo bestean egon fakturazioan baduela eragina, eta leku batzuk mesedegarriagoak direla bere negozioan aurrera egiteko.

Esan bezala, milioitik gora fakturatzeko enpresei dagokien zerga da.

Planteatzean duguna da zonaldearen arabera tipo desberdinak aplikatzea, hiru zonalde bereizi ditugu irizpide objektibo batekin, hau Hirigintzarekin egindako lanketa bat da, Kontuhartzaitzarekin batera. Beste herri batzuetan aplikatzen dena aintzat hartuta. Herri handienek eta industria daukatenean aplikatzen dute hemen, Gipuzkoan, Donostia, Irun, Erreterria eta Tolosak, besteak beste. Hortaz, planteatzen dugu hori ere aplikatzea.

Barkatu berriz ere, Mikel.

Mikel Gurutzeaga: Eskerrik asko.

Ibilgailu hibrido eta elektrikoen hobariari dagokionez, harritu gaitu bat-batean hobari hauek bertan behera uzteak. Esan duzu, alde batetik, Udalak ez duela kotxe pribatuen erabilera hobaritu behar eta Udalak garraio publikoa bultzatu behar duela bakarrik. Eta, bestetik, ibilgailu elektriko zein hibridoak garestiak direla eta hauen erosleek ez dutela Udalaren hobaririk behar. Lehenengo puntu honetan ados egon gaitzake, eta denon artean garraio publikoa hobetzen joan. Baina, bigarrenean, esan behar dugu ibilgailu elektriko eta hibridoetan geroz eta aukera gehiago daudela merkatuan; bai prezioan eta bai potentzian. Konbustio motorren ibilgailuetan bezalaxe. Nik uste merkatua ere asko aldatu dela.

Dena dela, guretzat hobariak mantentzeko arrazoi garrantzitsuena izango litzateke herriko airearen kutsaduraren maila jaistearen helburua. Nahiz eta gure herria tamaina ertainekoa izan, eta ez dugun ezarri behar zero emisio eremurik, gure kale-errepide guztietan hibrido eta elektriko diren ibilgailuak areagotzea komenigarria ikusten dugu. Eta osasungarri, denontzat. Arnasten dugun airearen kalitatea hobetzeko. Kutsadura akustikoa ere nabarmen jaisten da horrelako ibilgailuekin. Nik uste dut denon nabaritzen dugula hobekuntza hau hiri handietan, baina baita Hernanin ere. Gainera, pauso txiki bat izan daiteke, baina munduko deskarbonizazioaren alde ere hobari txiki bat da. Txikia, baina laguntza bat, azken finean.

Ulertzen dugu ere hobari hau ez dela izango herritar bat horrelako ibilgailu bat erostera bultzatzen duen arrazoi nagusia, baina lagundu dezake gizartean aldaketa klimatikoaz kontzientzia gehiago hartzeko ere.

Ez gaude ados zerga honen hobariak guztiz behera uztearekin. Hasieran esan zitzaigun batzordean erdira jaitsiko zirela, gutxi gora-behera, eta horrekin ados ginen; inguruko herriek egin duten mailalara iristeko. Baina, bat-batean, hutsera jaitsi dira laguntza hauek.

Zalantza ere sortzen zaigu: zer egingo da indarrean dauden hobariekin? Komentatu zen batzordean, baina nik uste dut argitu beharko litzatekeela. Bost eta hiru urteko hobariak dira. Eta, puntu honekin bukatzeko, guk uste dugu herrian zehar jar daitezkeela kargagailu elektrikoak, adibidez, faroletan. Sistema hau erabiltzen da Liverpool-en, jakin dugunez. Eta, nik uste, ekimen honek bultzatuko lukeela, baita ere, jendea pixka bat animatzea horrelako ibilgailuak erostera. Honek ez du zer ikusirik zergarekin, baina proposamen bat da.

Eta zazpigarren zergaren inguruan, kokapen indizeari dagokionez, poligonoetan, ez gaude ados zerga berri hau ezartzearekin. Hernanin jarduera ekonomiko gehienek enpresa txikiak eta ertainak dira, eta, gure ustez, haientzat izango den karga berri honek ez dauka justifikaziorik. Gaur egun, salerosketa merkatuaren tasazioak kontuan hartzen ditu, jada, kokapen ezberdinen ezaugarriak. Eskaintzen dituzten zerbitzuak edota egon daitezkeen alde guztiak. Salerosketa hauen prezioek alde handia izan dezakete poligono batetik bestera. Hortaz, ia erredundantea dela ikusten dugu indize berri hau aplikatzea.

IBlarekin berdina gertatzen da. IBla ordaintzen dutenean kokapena barne dago, balore katastralaren barruan dagoelako IBla kalkulatzeko. Orduan, ematen du bikoiztu egiten dela kokapenaren gaia zerga hau definitzerakoan.

Eta, adibidez, definitu diren Z4 eta Z5 eremuak mugakideak dira eta, beraz, metro gutxigatik Eziagon, adibidez, 1'1etik 1'3ra pasatzen da. Esan nahi du, metro gutxigatik batek ordainduko duela %18 gehiago besteak baino. Poligono berdinean. Eremuak Eziagon, adibidez, mugakideak direlako.

Horrez gain, kurioa iruditzen zaigu 1 indizea ez dago poligonorik indize honekin definituta eta horrek esan nahi du edozein jarduerari %10 igotzen zaiola 1 indizean. 1'1 da gutxiengoa, orduan, edozein jarduerari %10 igotzen zaio indize hau aplikatuz. Eta %10, %3 orokorra baino nabarmen gehiago da. Ez dakit... hori arraroa iruditzen zaigu.

Dena dela, beste ordenantza guztiekin ados gaude. Bi hauek izan ezik. Beraz, gure bozka abstentzioa izango da.

Alkatea: Eskerrik asko.

Zerga berriaz ez gara hitz egiten ari. Pentsatzen dut Donostian aplikatzen duzuenean ere kontra egongo zaretela, ezta? Zuen alderdiak aplikatzen duenean.

Herri desberdinetan aplikatzen ari den kontu bat da eta ikusten da Aldundiak berak ere ahalbidetzen duela eta Aldundiak ere egokitzen jotzen duela. Aipatu, Ugaldetxoko tasa Ereñotzukoekin batera landu dugula eta kontrastatuta eta ontzat ematen dutela, eta batzordean ere esan genuela, Ricardo zuk esan duzunari erantzunez, lantzen ari garela eta lanketa ere erakutsi genizuen... beldurra ematen dit esateak, baina txotx garaiko autobusen etorrera nolabait ordenatzea eta tasarena jartzea.

Badakit biharko titularra hau izango dela (irribarrez publikora begira), baina uste dut beste lanketa bat behar duela honek, eta lantzen ari gara.

Eta igoerak daudenean, GHK ere igoerak planteatzen dizkigu eta urtero-urtero igoerak herrioi suposatzen dizkigute; horrek ere defizit bat sortzen du eta igoera hauek ere badira GHK suposatzen dituen igoerak orekatzeko.

Mikel, zuk esan duzunarekin, trakzio mekanikoko ibilgailuekin, ados; gu ere hausnartzen egon ginelako. Baina hobari hau noiz arte eman behar dugu? Betira arte? Hasiera batean ematen dira eta iritsi behar du bukaera batek. Noiz iritsi behar du bukaerak? Guri iruditzen ziztaigun bazela garaia. Garaia, esandakoagatik.

Osasungarria denentzako izan dadin. Horretarako bultzatu behar dugu beste mota bateko mugikortasuna ibilgailu pribatuena. Eta, jakina, ibilgailu pribatu dieselarena edo elektrikoak, emisio gutxiago ditu, emisio diot, baina horren fabrikazioak bere arazoak baditu baita ere, guri ez digutenak gehiegi suposatzen, beste toki batzuetan egiten direlako. Orduan, hemen ere bada ardura hartze bat. Eta, esaten genuena, hemen inoiz eta inongo herritan ibilgailu pribatuak ez dira hobaritu. Badago denboraldi bat, non, nolabait indartu behar den hibrido eta elektrikoaren erabilera hau, baina denbora mugatu batean. Eta, uste dugu, denbora mugatu hori nahikoa izan dela eta hemendik aurrera normaltasun batera bihurtzen gara. Ez da igotzea, normal ordaintzea da, hori ordaintzeko bitartekoak badauzkanak. Eta, aurretik eskatu dutenek jarraituko dute izaten. Horregatik ordenantzen tasen testuan xedapen iragankor bat jarriko da, jada onartu zaienei, beraien epea bete arte izateko. Eskaera berriek ez lukete izango.

Bigarren erronda irekiko dugu.

Ricardo Crespo: Hondakinen kudeaketari buruz, nik esan dudana da urtez urte egin ez dugun edo udaletxe honetan egin ez den igoeraren errua dela gaur egun %30 igotzea. Pasa den urtean ere bai eta datorren urtean ere bai. Eta, beste gauza bat, GHKri buruzko igoeraren aipamena egin duzu, tarifen igoera, azken finean, eta GHKn eta zuk nik bezain ondo dakizu, bertan dauden alderdi eta mankomunitate gutzien aho-batez onartutakoa dela; eta ez da %30.

Mikel Gurutzeaga: Agian zuk esan duzu badela garaia kotxe elektriko eta hibridoaren hobariak kentzeko, baina nik uste dut oraindik trantsizio garai batean gaudela eta oso ibilgailu elektriko eta hibrido gutxi ikusten direla. Nik uste dut oraindik hobariak emateko garaia dela.

Alkatea: Iritzi desberdintasun bat da denborari dagokionez.

Ados egoteak eta tarifak elkarrekin adosteak ez du esan nahi igoera bat egon ez denik herrietan asumitu behar dugunik. Eta gogoratzen naiz, aipatu duzunean iaz gauza bera esan nizuela, eta hurrengo urtean ere esango dizuet: urteetan udal honek ez duela aplikatu hondakinen bilketan igoerarik, baina Euskal Sozialistak udal taldeak ere ez du inoiz proposatu. Eta iaz gauza bera esan nizuen. Inoiz ez duzue proposatu.

Beraz, hau dena azalduta, bozkatzera pasako gara. 2026ko ordenantza fiskalen aldaketaren aldeko botoak? EH Bildu eta Elkarrekin-Podemos udal taldeak. Kontrako botoak? Ez dago kontrako botorik. Eta, abstentzioak? EAJ eta Euskal Sozialistak udal taldeak. **Hortaz, 2026ko ordenantza fiskalen aldaketa onartzen da.**

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	13	<ol style="list-style-type: none"> 1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. 2. Itsaso Lekuona Legorburu. 3. Patxi Ibarguren Echeverria. 4. Ainara Atorrasagasti Urizar. 5. Aitor Lukas Solano.

		6. Asier Mingo Arruabarrena. 7. Amaia Miner Canflanca. 8. Aitor Huizi Izagirre. 9. Urko Lazkoz Fernandes. 10. Oier Agirresarobe Lizaso. 11. Miren Kistiñe Rodriguez Polaina. 12. Jaione Aristregui Cao. 13. Lurdes López Gorrotxategi.
KONTRA		
ABSTENTZIOAK	8	1. Andoni Amonarraiz Gómez. 2. José Antonio Cuesta Solé. 3. Blanca Alberro Aranzasti. 4. Miryam Vazquez Vecino. 5. Mikel Gurutzeaga Zubillaga. 6. Ismael Ganchegui Gonzalez. 7. Ricardo Crespo Rubio. 8. María Jesús Ruiz Ochoa

OSOKO BILKURAK HARTUTAKO ERABAKIA

Ekonomia sailak aurkeztutako txostenak kontuan hartuta.

Kontuhartzaileak aurkeztutako txosten tekniko-ekonomikoa (2024-08-30) kontuan hartuta.

Ingurumen saileko arduradunak aurkeztutako txostena kontuan hartuta

Kontuhartzaileak eta hirigintzak aurkeztutako txostena kontuan hartuta

Kontuan hartu da Antolaketa eta Ogasun batzordeak 2025eko irailaren 25eko bilkuran GEHIENGOZ emandako irizpena

Horiek horrela, hau erabaki da: **GEHIENGOZ**

Lehen. - Ordenantza fiskalen eranskin hauek aldatzea, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

1. ZERGAK

1. ZERGAK

1.1 ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

%6ko igoera lurzoru erresidentzian kokatutako hiri ondasunetan

%3ko igoera lurzoru industrial edo tertziarioan kokatutako hiri ondasunak

Lurzoru erresidentzian kokatutako hiri ondasunak	0,2293
Lurzoru industrial edo tertziarioan kokatutako hiri ondasunak	0,6000*

Landaluz Ondasun Higiezin gainerako Zergari aplikagarri zaion karga tasa **1,1***

* *Foru Arauak ezarritako gehiengoa*

2025an indarrean dauden hobaria mantentzen dira, motor ezaugarriaren arabera izan ezik (motor hibrido eta elektrikodun ibilgailuen hobariak)

1.2 EKONOMI JARDUEREN GAINEKO ZERGA

2025ko karga tasak mantentzea: 2,2* (Foru Arauak ezarritako gehiengoa baita)

* Foru Arauak ezarritako gehiengoa

1.3 TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

%3ko igoera

TURISMOAK	igoera koef	2024 kuota
9 zaldi fiskaletik beherakoak	2,5508	46,91
9 eta 11,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,7805	102,27
12 eta 13,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,8396	174,07
14 eta 15,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,9067	249,46
16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartekoak	3,000*	331,02
20 zaldi fiskaletik gorakoak	3,000*	404,58
AUTOBUSAK		
21 plaza baino gutxiago	2,7529	229,32
21 eta 50 plaza bitartean	2,7781	329,60
50 plaza baino gehiago	2,8390	421,03
KAMIOIAK		
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	2,6736	113,04
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,6887	223,97
2.999 kg-tik gorako eta 9.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,7073	321,20
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	2,7673	410,40
TRAKTOREAK		
16 zaldi fiskal baino gutxiago	2,6547	46,91
16 eta 25 zaldi fiskal bitartean	2,6795	74,41
25 zaldi fiskal baino gehiago	2,6663	222,11
TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUAK ERAMANDAKO ATOIAK ETA ERDI-ATOIAK		
750 kg-tik gorako eta 1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	2,7108	47,90
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,7277	75,75
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	2,7301	227,42
BESTE IBILGAILU BATZUK		
Ziklomotoreak	2,6607	12,00
125 cm ³ bitarteko motozikletak	2,6607	12,00
125 cm ³ baino gehiagoko eta 250 cm ³ bitarteko motozikletak	2,8341	21,88
250 cm ³ baino gehiagoko eta 500 cm ³ bitarteko motozikletak	2,8899	44,65
500 cm ³ baino gehiagoko eta 1.000 cm ³ bitarteko motozikletak	2,8915	89,35

1.000 cm ³ -tik gorako motozikletak	2,8896	178,55
--	--------	---------------

2025an indarrean dauden hobaria eta salbuespenak mantentzen dira motor ezaugarriengatiko hobariak izan ezik

1.4 ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

2025ko karga tasa mantentzea

	Karga mota
Ondoko zerga egitate hauek ezarri dira:	
1.- 12.000 eurotik beherako kostua duten obrak	%0
2. Merkataritza-lokal txikiak berritzeko, 60.000 eurotik beherako kostua duten obrak	%0
3.- Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Bizigune programa barruan burututako obrak	%2
4.- Erregimen Orokorreko Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeako obrak	%2
5.- . Erregimen Tasatutako Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeako obrak	%3,5
6.- Obra txikiak	%4
7.- Obra handiak	%5
8.- Nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduera batekin lotutako hirigintza-jarduera oro, betiere jarduera hori nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueraren titularraren izenean badago	
12.000 eurotik gorako kostua	%1,65
9.- Nekazaritza jarduerarekin zerikusia duten etxebizitzetarako xedea duten eraikinetako obrak, betiere etxebizitza hori ustiapenaren titularraren ohiko etxebizitza gisa erabiltzen bada (dedikazio osoa duenean):	
12.000 eurotik gorako kostua	%1,65
10.- 10 urte bitarteko bizileku eraikinetako teilatu eta terraza komunak birgaitzea eta eraldatzea, eta fatxadak birgaitzea garbitzea edo txukuntzea.	%2,5
11. 10 urte bitarteko bizileku eraikinetan igogailuak jartzea, arrapalak, plataformak, jasogailuak, elementuak eta atariaren eta igogailuaren arteko desnibela gainditzeko balio duen beste edozein obra.	%2,5
12 Arau subsidiarioetan babestu eta kontserbatzeko izaerez jasoriko eraikinak	%1
13.--Udalak onarturiko zaharberritze egitasmoetan jasoriko eraikinak	%1

UDALBATZAK IZENDATUTAKO INTERES BEREZIKO EDO UDALAREN MESEDERAKO OBRATZAT JOTAKO OBRAK

14.- Mugikortasun arazoak dauzkaten lagunentzat etxebizitza barruan irisgarritasuna eta bizi egokitasuna errazteko egindako obrak .Dagokion herri administrazioak aurretik emandako txostena beharko da, non adieraziko beharko baita aipatu obrak premiazkoak direla	%0,25
15.- Teilatu eta terraza komunak birgaitzea eta eraldatzea, eta fatxadak birgaitzea garbitzea edo txukuntzea, 10 urte baino gehiagoko etxeak izan eta bizitokitarako erabiltzen badira	%0,25
16.- Igogailuak jartzea igogailurik ez duten etxeetan; eta arrapalak,	%0,25

plataformak, jasogailuak, elementuak eta atariaren eta igogailuaren arteko desnibela gainditzeko balio duen beste edozein obra, 10 urte baino gehiagoko etxeak izan eta bizitokitarako erabiltzen badira	
17.- Eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzea. Beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistemak (UBS) eduki behar dituzte. Eskatzailea energia berriztagarrien komunitate bateko kide bada.	%0,20
18.- Eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzea. Beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistemak (UBS) eduki behar dituzte. Eskatzailea energia berriztagarrien komunitate bateko kide ez bada.	%2

2025n indarrean salbuespenak mantentzen dira.

1.5 HIRILURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA.

KARGA-TASA	
0 eta 5 urte artekoa	20
10 urte artekoa	16
15 urte artekoa	13
16 urtetik gorakoak	10

Bestalde, sortzapenaren unean lursailaren balioari aplikatu beharreko koefizienteak balioaren gehikuntza sortzen den aldiaren arabera, sortzapenaren unean, Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauak ezarritako gehienezko koefizienteak izango dira. Koefiziente horiek ordenantzaren eranskin jasoko dira eta aipatutako foru arauan ezarritako koefizienteen arabera eguneratuko dira

2025n indarrean dauden hobariak mantentzen dira.

2.- UDAL JABETZA PUBLIKOA OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

2.1. IBILGAILUAK ESPALOIETAN ZEHAR FINKEN BARRUKO ALDERA SARTZEA ETA HORIEK BIDE PUBLIKOAN DUTEN APARKAMENDU ERRESERBA.

%3ko igoera

Kontzeptua	Euro
a) Ibilgailuak espaloietan barrena sartzea (igarobide partikularrak, industria, garaje publiko eta kolektiboetarako igarobidea), ibi edo pasabide iraunkorra:	
-toki bakoitzeko	10,15
b) Bide publikoan espazioak erreserbatzea, ibi edo pasabide iraunkorra: :	
- Metro lineal edo zati bakoitzeko	39,55
c) Bide publikoan espazioak erreserbatzea, ibilgailua utzi nahiz aparkatzea debekatuta. Ordutegi mugatua	
- Metro lineal edo zati bakoitzeko	19,82

2.2.- HORNIKUNTZA ZERBITZUAK USTIATZEKO ENPRESEK ORDAINDU BEHARREKO TASAK, UDAL JABETZA PUBLIKOKO LURRA, HEGADA ETA LURRAZPIA OKUPATZEAGATIK.

2025ko Karga tasa mantendu egiten da

2.3. BIDE PUBLIKOEN APROBETXAMENDU BEREZIAK:

2.3.1 BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK ETA MAHAITXOAK JARTZEA

%3ko igoera

Kontzeptua	Euro
a) Mahaiak eta aulkiak jartzea m2 eta urte bakoitzelp	
1, Urtebeterako	33,06
2. Aldi bateko: <i>udako denboraldia (maiatzaren 1etik urriaren 31ra)</i>	28,78
b) Instalazio finkoekin m2 edo zatiko, urteko tasa	218,66

2.3.2 GAINERAKO APROBETXAMENDU BEREZIAK.

%3ko igoera

KONTZEPTUA	EURO
a) Makina automatiko eta antzeko instalazioekin okupatzeko, aldi baterako edo behin betiko, unitatea (gehi 16,00 euro m2 urteko)	26,83
b) Kutxazain automatikoak fatxadatik eskaintzen duten autozerbitzuak, instalazio bakoitzeko eta urteko	354,83
c) Bide publikoa okupatzea kioskoekin, prentsa saltzeko postuekin, ONCEko kabinekin eta bestelakoak:	
ONCEko kabinak: urtean	339,43
Argazkiak ateratzeko kabina: urtean	339,43
d) Bide publikoa okupatzea, hesi, salgai, aldamiu eta abarrekin	
Salgaiak, hondakinak, lurra, harea, materialak: m2 edo zatika eta eguneko	2,67
Hesiak, aldamiuak edo bestelako instalazio egokiak: m2 edo zatika eta eguneko	0,64
Obra-hondakinak, aldamiuak, edo bestelako instalazio egokiak. m2 edo zatika eta eguneko	4,32
Zutabe, eustaga edo eusteko beste hainbat elementu. Bakoitzeko eta hamabostaldiko edo zatika	9,01
e) Kanean salmenta postuak:	
Izozkiak, txurroak, buñueloak : hilero/metro lineala	16,78
Gaztainak (urriaren 1etik martxoaren 31 arteko aldia): hilero/metro lineal	11,17

Baimendutako beste artikuluko batzuk (metro lineal edo zatika) eguneko	10,85
f) Bide publikoan noizbehinkako okupazioak jaietan (inauteriak, san joan, auzoko jaiak eta Euskal jaiak) Gipuzkoako Feriariaren Elkartearekin izenpetutako Hitzarmenaz kanpo geratzen diren postuak eta ordenantza honetako gainerako ataletan ez aurreikusitakoak	
*Baimendutako produktuak: Bisuteria, larruzkoak, eskuz egindakoak, arropa... metroka:(lineal)	
-Eguneko	21,32
-jaiak irauten duten egun guztiengatik	64,42
*Hanburgesak, ogitartekoak, ... saltzea, metro lineal eta eguneko	44,90
g) Jai nagusietan eta auzoetako jaietan barraka eta jolasguneekin okupatzea: hitzarmena Gipuzkoako Feriariaren Elkartearekin.	
h) Zirko ikuskizunak edo antzekoak:	
1.000 ikusleentzat, eguneko	275,01
1.000 ikusleentzat baino gehiago, eguneko	363,02
832,40€-ko fiantza bat ezarriko da, udal teknikoaren oniritzia jaso ondoren itzuliko litzatekeena.	
i) telekomunikazio-azpiegitura propioak eta/edo hirugarrenenak instalatzea, muntatzea, ustiatzea, mantentzea, kontserbatzea, konpontzea eta aldatzea jabari publikoan, bai eta telekomunikazio-zerbitzuak emateko eharrezkoak eta/edo komenigarriak diren elementu osagarriak ere: Tasaren zenbatekoa kalkulatzeko honako biderkagaiak kontuan hartuko dira: Onartutako tarifa, ustiapenaren denbora egunetan eta azalera metro karratuetan	
Tasaren zenbatekoa kalkulatzeko honako biderkagaiak kontuan hartuko dira: Onartutako tarifa, ustiapenaren denbora egunetan eta azalera metro karratuetan Ustiapenaren iraupena zerga epealdi bat baino gehiagokoa bada, epealdi bakoitzerako tarifa aplikatuko da.	1,95

2.4. ASTEKO FERIA ETA UDALETXKO ARKUPEETAKO SALTOKIEZ BIDE PUBLIKOA OKUPATZEA

%3ko igoera

Kontzeptua	Euro/ partzela
a) Baserriko barazkiak, arraultzak...	31,05
b) Baserriko beste produktuak (aperoak, hazi loreak, landareak...)	64,06
c) Urdaiazpikoa, hestekiak oro har, gazta eta gurinak	257,60

d) Alimentazioa: fruta, fruitu lehorrak, pastak, olibak, bakailao, babarrunak, ekologikoak, txutxeak	162,22
e) Edariak: ardoa, sagardoa, txakoli, likoreak...	305,34
f) Beste produktuak: arropa, zapatak, liburuak, sukaldeko menajea, kosmetika, jostailuak bisuteria	192,81

2.5. UDALETXEKO ARKUPEETAN LOREAK SALTZEKO SALTOKIAK "SANTU GUZTIEN EGUNA".

%3ko igoera

Kontzeptua	Euro
Loreak saltzea eguneko	73,49

2. 6.- HERRIKO HAINBAT KALETARA SARTZEKO KONTROL SISTEMA

%3ko igoera

Ibilgailuak sartzeko baimena eskuratzea:

Tarifak	Euro
Sartzeko kontrol sistamarako baimena	10,85

2.7 EREÑOTZU AUZOKO PILOTA LEKUAREN ERABILERA

2025ko tarifak mantentzen dira

1.- Ereñotzuko pilota lekuaren erabilerarako ondoko tasak:

1. Ordua hartuta dutenentzat **51,80**
€/hilean
(aldagelen eta dutxen erabilera barne)
2. Libre geratzen diren orduetan aldagelen erabilera
 - 2.1 4 pertsona arte
3€/pertonako
 - 2.2 5-12 pertsona..... **12,00**
€/aldiko
 - 2.3 12 pertsonatik gorako taldearentzat:.....**12,00€**/ aldiko gehi **1,00**
€ pertsonatik gorako bakoitzeko
3. Argiarentzako fitxa bakoitza (ordu beteko iraupena)..... **3,00 €**

4. ADMINISTRAZIO ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

4.1 AUTO-TAXI ETA GAINERAKO AKURA-IBILGAILUEN LIZENTZIA ETA BAIMEN ADMINISTRATIBOAK EMATEA

Tarifak:

%3ko igoera (igoerak ez ditut aplikatu oraindik)

Kontzeptua	Euro
Auto-taxietarako lehen lizentzia	579,32
Auto-turismoen lehen lizentziak	579,32
Abonu eta zerbitzu berezi eta abonuetarako lehen lizentziak	579,32
Eman diren eta indarrean irauten lizentzien transmisioak plaza kopurua bereizi gabe,	4.653,90
Emandako lizentzia duten ibilgailuen ordezkapena	46,50
Ibilgailuen urteroko berrikuspenak	23,22
Gidari baimenak luzatzea	23,22

4.2.- HIRIGINTZAKO LIZENTZIAK EMATEA
1. Tarifak: %3ko igoera

Kontzeptua	Euro
Obra-baimen eskaerarekin, erantzukizunpeko aitorpearekin edo aurre jakinarazpenarekin batera aurkezten den aurrekontuaren arabera	
6.000€ arte	0
6001€ eta 12.000 € bitarteko aurrekontua duten obretarako lizentziak	82,25
12.001 € eta 30.000 € bitarteko aurrekontua duten obretarako lizentziak	301,48
30.001 € eta 100.000 € bitarteko aurrekontua duten obretarako lizentziak	828,79
100.001€ eta 500.000€ bitarteko aurrekontua duten obretarako lizentziak	1.791,63
500.001 €-tik gorako aurrekontua duten obretarako lizentziak	3.580,90
Lehen erabilerako lizentziak:	
Etxebizitza bakoitzeko	85,55
Merkataritza lokalak: eraikitako m2 bakoitzeko	1,49
Hirugarren sektoreko erabilerako lokalak: eraikitako m2 bakoitzeko	0,90

Garaje plaza bakoitzeko	17,15
500 m2 edo gutxiagoko azalera duten industria bakoitzeko	430,85
500 m2-tik gorako azalera duten industria bakoitzeko	861,70
Lerrokadurak, fatxadako metro lineal bakoitzeko	9,84
Aurreko lizentziak luzatzea edo eskualdatzea, kuota likidoaren kopuruaren ehunekoaren arabera	%30
Lur zatiketa/banatzea	256,88
Merkataritzarako lokala etxebizitza izatera aldatzeagatik edo alderantziz eskuratu beharreko lizentzia	256,88
Lur mugimenduak egiteko lizentzia	562,53

2.- 2025ko hobariak eta salbuespenak mantentzea

4.3.- HIRIGINTZA GAJETAN LIZENTZIAK, BAIMENAK ETA ESPEDIENTEAK LUZATU ETA EMATEA

%3ko igoera

Kontzeptu	Euro
Hirigintza kuotak kobratzea	2.417,98
Konpentsazio Batzordearen aldeko desjabetze espedientea	2.200,03
Udalari urbanizazioa lagatzea	7.152,16
Aurri espedientea	1.847,51
Planeamenduko elementuen aldaketa: Ogasun eta Ondare batzordeak kasu bakoitza aztertuko du, administrazio kostuaren balorazioaren txostena egin ondoren	

4.4 ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO ETA INSTALAZIOAK EZARRI EDO ALDATZEKO LIZENTZIAK

1.Tarifak: %3ko igoera

2. Hobariak: 2025ko hobariak mantentzen dira

7.- Ingurumen baimen bateratua edo baimen bakarra behar duten jarduerak:

KONTZEPTUAK	Euro
A) Jarduera funtzionatzen hasteari edo irekitzeari buruzko jakinarazpena	

1. 1.000 m ² arteko instalazioak	978,65
2. 1.000 m ² – 2.000 m ² artekoak	1.304,90
3. 2.000 m ² – 5.000 m ² artekoa	1.739,87
4. 5.000 m ² baino instalazio handiagoak	2.392,23
Instalazioak legeztatzea, jartzea edo aldatzea (ur biltegiak, haize egokitua, etab.)	734,03
C) Lokalen eskualdaketak edo titular aldaketak,	%50a

2. Jarduera sailkatuaren lizentzia behar duten jarduerak. (mantentzen dira)

KONTZEPTUAK	Euro
A) Jarduera berriaren lizentzia	Euro
1. Merkataritza eta zerbitzuetako lokalak	723,06
2. Nekazaritzako jarduerak	688,25
3. Abeltzaintzako jarduerak	688,25
4. Industria jardueretarako lokalak	
	946,26
Instalazioak legeztatzea, jartzea edo aldatzea (ur biltegiak, haize egokitua, etab.)	
C) Lokalen eskualdaketak edo titular aldaketak, Jarduera berari eusten bazaio eta jarduera eta irekiera lizentziak indarrean dagoen legediaren arabera baldin badaude(martxan jarri aurreko komunikazioa eta aurkeztu beharreko dokumentu guztiak Udaletxean aurkeztuak badaude)	723,06
Lizentzian aldaketaren gai den jarduerari dagokion kopurua	%50

3. Jarduera sailkatuaren aurretzako jakinarazpena aurkeztu behar duten jarduerak. (mantentzen dira)

KONTZEPTUAK	Euro
A) Jarduera berriaren lizentzia	Euro
1. Merkataritza eta zerbitzuetako lokalak	420,85
2. Nekazaritzako jarduerak	401,08
3. Abeltzaintzako jarduerak	401,08
4. Ostalaritza	723,06

5. Finantza erakundeen lokalak	946,26
6. Industria jardueretarako lokalak	723,06
7. Garaje jardueretarako lokalak (garaje plaza bakoitzeko)	26,26
B) Jarduera legeztatzea, handitu edo aldatzea	401,08
C). Lokalen eskualdaketak edo titular aldatetak, jarduera berari eusten bazaio eta jarduera eta irekiera lizentziak indarrean dagoen legediaren arabera baldin ba dauzkate	
Lizentzian aldatetaren gai den jarduerari dagokion kopurua	%50

4.6 UDAL HILERRIAN ZERBITZUAK ETA EMAKIDAK GAUZATZEA

%3ko igoera

1-Ehorzketa eta deshorzketa zerbitzuak eta hora-hilobien emakida	
a) Ehorzketak 1- horma- hilobietan eta kolunbarioetan	100,84
2- panteioetan	134,41
b) Desehorzketak	112,01
Emakidak	
a) horma-hilobian emakida 10 urte arte	757,30
b) kolunbarioren emakida 10 urte arte	367,45
c) Horma-hilobi komun hileta-eskubidea ematea 10 urte arte	244,26
Emakidaren luzapena	
a) horma-hilobian emakida luzatzea (5 urte) (murrizketarik gabe)	378,68
b) kolunbarioren emakida luzatzea (10 urte)	367,45
c) Horma-hilobi komun hileta-eskubidea ematea luzatzea (10 urte)	244,26
2) Gorpuaren lekualdaketa	
a) lekualdatzea	168,05
b) Gorpuzkinetarako kaxa	72,87
c) hilarria jartzea	56,03
3) Hondakinaren murrizketak	
a) gorpuzkin bat	106,45

b) 2 gorpuzkin	145,64
c) 3tik 10 gorpuzkin arte	184,88
d)10 gorpuzkin baino gehiago	235,30

4.7 SANEAMENDUKO ZERBITZUA

Tarifak: 2025ko ehunekoa mantentzea

Ur kontsumoagatik ordaindu beharreko zenbatekoaren %84,10ekoa izango da (zergak sartu gabe).

%3ko igoera

4.8 HONDAKINEN BILKETA

A) EREMU ERRESIDENTZIALA eta LANDALURRA:

%30 igoera

Ematen diren zerbitzuen arabera egokitzen dira zerga egitateak eta tarifa berriak sortzen dira:

Tarifa	Tarifa koefizientea	2026 €/seihileko tarifa
Hiriguneko etxebizitzetan atez ateko bilketa	1	94,64
Hiriguneko etxebizitzetan atez ateko bilketa, Auzoko konposta eginez.	0,75	70,98
Hiriguneko etxebizitzetan atez ateko bilketa, AUTO konposta eginez.	0,75	70,98
Landa eremuko etxebizitzetan atez ateko bilketa.	1	94,64
Landa eremuko etxebizitzetan atez ateko bilketa eta AUTO konposta egiten dutenak.	0,75	70,98
Landa eremua etxebizitzetan ekarpen gunera hondakinak eramaten dutenak.	0,85	80,44
Landa eremuko etxebizitzetan ekarpen gunera hondakinak eraman eta konposta egiten dutenak	0,57	53,94

Merkataritza Establezimenduak**	
Zerbitzua	2026 €/seihileko
Jarduerarik gabeko lokala	70,98
Sortzaile txikiak: Hondakin- frakzioko 40l edo gutxiago sortzea	113,43
Sortzaile ertainak: Hondakinen-	313,50

frakzioetako batean 80l edo gehiago sortzea	
Sortzaile handiak: 2 hondakin frakzio edo gehiagotan 80l-tik gora sortzea	407,49
Sagardotegiak	410,15

** landalur eremuan garatzen diren jarduerari aplikatuko diren koefiziente murriztaileak -bilketa motaren arabera-

Hondakinen bilketa zerbitzua jardueraren lokaleraino ailegatzen ez bada	0,85
Landa eremuko jardueretan, konposta eginez gero	0,57

JARDUERA IBILTARIENTZAT		
Eguneko zerbitzua		23,98
Kontuan hartuko da zenbateko finko bat eta eguneko zenbatekoa	Kuota finkoa €	kuota aldagaia (€/eguneko)
Sortzaile txikia	42,05	1
Sortzaile handia	84,24	2

B) EREMU INDUSTRIALA

I- ERANSKINA.- Hondakinen bilketa zerbitzua Industria, lantegi eta enpresetan.- Tasa aplikagarria
%30 igoera

Kodea	Tarifaren deskripzioa	€/hiruhileko
1	Lokalak edo establezimenduaren azalera m2 bakoitzeko	0,37
2.1(1)	Erabiltzaileen esku utzitako material birziklagarrietako frakzioen 1.000 litrorako arteko edukiontzi bakoitzeko, edota 1.000 litrorako arteko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio hauek biltzeko eskubidearekin: 2.1.1. Egurra frakzioa 2.1.2. Film plastikoa frakzioa 2.1.3. Porex frakzioa 2.1.4. Fleje frakzioa (1) Papera/kartoia eta ontzi arinak ez dira kobratuko betiere beste hondakin-frakzio batzuekin nahasirik ez badira ateratzen.	77,48 43,03 43,03 43,03
2.2 (1)	Erabiltzaileen esku utzitako material birziklagarrietako frakzioen 360 litrorako arteko edukiontzi bakoitzeko, edota 360 litrorako arteko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio hauek biltzeko eskubidearekin:	51,74 28,73 28,73 28,73

	2.2.1. Egurra frakzioa 2.2.2. Film plastikoa frakzioa 2.2.3. Porex frakzioa 2.2.4. Fleje frakzioa (1) Papera/kartoia eta ontzi arinak ez dira kobratuko betiere beste hondakin-frakzio batzuekin nahasirik ez badira ateratzen.	
2.3	Erabiltzaileen esku utzitako errefus frakzioen 1.000 litrora arteko edukiontzi bakoitzeko, edota 1.000 litrora arteko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	78,00
2.4	Erabiltzaileen esku utzitako errefus frakzioen 360 litrora arteko edukiontzi bakoitzeko, edota 360 litrora arteko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	48,81
2.5	Erabiltzaileen esku utzitako errefus frakzioen 120 litrora arteko edukiontzi bakoitzeko, edota 120 litrora arteko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	12,87
2.6	Erabiltzaileen esku utzitako inerte frakzioen 1.000 litrora arteko edukiontzi bakoitzeko, edota 1.000 litrora arteko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	78,00
2.7	Erabiltzaileen esku utzitako inerte frakzioen 360 litrora arteko edukiontzi bakoitzeko, edota 360 litrora arteko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	48,81
2.8	Erabiltzaileen esku utzi eta biohondakinerako den 1.000 litrora arteko edukiontzi bakoitzeko edota 1.000 litrora arteko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	43,03
2.9	Erabiltzaileen esku utzi eta biohondakinerako den 360 litrora arteko edukiontzi bakoitzeko edota 360 litrora arteko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	28,73
2.10	Erabiltzaileen esku utzi eta biohondakinerako den 120 litrora arteko edukiontzi bakoitzeko edota 120 litrora arteko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	12,61
2.11	Erabiltzaileen esku utzi eta biohondakinerako den 40 litrora arteko edukiontzi bakoitzeko edota 40 litrora arteko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	5,39
3.1	Inerteak biltzeko 1.000 litrora arteko edukiontziaekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko.	47,00
3.2	Inerteak biltzeko 360 litrora arteko edukiontziaekin prestatutako	28,40

	zerbitzu unitate bakoitzeko.	
3.3	Errefusa biltzeko 1.000 litrora arteko edukiontziaekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko.	62,01
3.4	Errefusa biltzeko 360 litrora arteko edukiontziaekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko.	37,76
3.5	Errefusa biltzeko 120 litrora arteko edukiontziaekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko.	14,04
3.6*	Biohondakina biltzeko 1.000 litrora arteko edukiontziaekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko.	70,79
3.7*	Biohondakina biltzeko 360 litrora arteko edukiontziaekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko.	5,39
3.8*	Biohondakina biltzeko 120 litrora arteko edukiontziaekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko.	2,79
4	Zerbitzu bereziak	505,31
5.1	7/2022 legearen 93.artikuluak dioena aplikatzearen ondorioz intertea kudeatu eta Aizmendira eramateko 1.000 litrora arteko edukiontziaekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko	1,30
5.2	7/2022 legearen 93.artikuluak dioena aplikatzearen ondorioz intertea kudeatu eta Aizmendira eramateko 1.000 litro baino gehiagoko edukiontziaekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko	3,25

* Biohondakin bilketa gutxienez astean behin egingo da.

Hondakinak kargatzeko bitarteko laguntzaileak behar izanez gero, **bitarteko horiek zerbitzuaren erabiltzaileak berak jarri beharko ditu**

II.- Eranskina.-

Kodea	Tarifen deskripzioa	2026 €/hiruhileko
10	Lokal edo establezimenduaren azalera =< 50m ²	88,72
11	50m ² < Lokal edo establezimenduaren azalera =< 100 m ²	106,27
12	100 m ² < Lokal edo establezimenduaren azalera = < 150 m ²	127,53
13	150 m ² < Lokal edo establezimenduaren azalera = < 200 m ²	153,14
14	200 m ² < Lokal edo establezimenduaren azalera = < 250 m ²	200,07
15	250 m ² > Lokal edo establezimenduaren azalera	220,54

4.9 UR HORNIDURA-

%3ko igoera

Tarifak: lauhileko tarifak onartzen dira

<i>Kontzeptua</i>	<i>Euro/ lauhileko</i>
Banakako kontagailua duten etxebizitzaren etxeko erabilera arrunterako hornidura. <u>Salbuespena:</u> ez zaie tarifa hau aplikatuko familia bakarreko etxebizitzari (etxebizitza isolatuak, pareatuak eta atxikitakoak). Etxebizitza horiei kalibrearen arabera tarifa aplikatuko zaie, hots, gainerako horniduren atalean ezarritako kalibrearen arabera.	14,42
Kontagailu orokorra duten etxebizitzaren etxeko erabilera arrunterako hornidura. Ordaindu beharreko kuota honela kalkulatu da: banako kontagailuaren tarifa bider finkan dauden abonatuaren kopurua. <u>Salbuespena:</u> ez zaie tarifa hau aplikatuko bizilagunen komunitateetako instalazio edota zerbitzu komunetarako kontagailu orokorrei (berogailuak, atarien garbiketa...). Horiei kalibrearen arabera tarifa aplikatuko zaie, hots, gainerako horniduren atalean ezarritako kalibrearen arabera.	14,42
Gainerako hornidurak:	
13 mm-ko edota 15 mm-ko kalibrea	24,56
20 mm-ko kalibrea	25,28
25 mm-ko kalibrea	34,60
30 mm-ko kalibrea	46,60
40 mm-ko kalibrea	60,25
50 mm-ko kalibrea	70,76
65 mm-ko kalibrea	124,11
80 mm-ko kalibrea	161,65
100 mm-ko kalibrea	229,69

1. M3ko kontsumo, erabilzailearen eta zatien arabera bereiztu beharko da: lauhileko tarifak onartzen dira
1.- Etxeetako hornidura, hiri-lurrean eta landa-lurrean (baserriak)

65 m ³ arte	0,64
65 m ³ baino gehiago	1,20

2.- Merkatal eta garajeetako hornidurak

35 m ³ arte	0,82
35 m ³ baino gehiago	1,38

3.- Ostalaritza eta zerbitzuetako hornidurak

75 m ³ arte	1,16
75 m ³ baino gehiago	2,14

4.- Eraikuntza, obra eta zundaketako jardueretako hornidurak

50 m ³ arte	1,84
50 m ³ baino gehiago	2,34

5.- Sute aurkako hornidurak
Zatirik gabe: **0,54 € m³** (estolderian salbuetsita)

6.- Jabedun finkak ureztatzeko eta igerilekuetako hornidurak.

500 m ³ arte	2,00
500 m ³ baino gehiago	2,52

7.- Udaletxeko eta bere Erakundeetako, Autonomia dunetako zein Patronatuetako hornidurak (Etxeetako kuota)

65 m ³ arte	0,64
65 m ³ baino gehiago	1,20

8.- Ondoko taldeetako hornidurak: Ikastetxe, ospitale, anbulatorio (Osakidetzaren menpean dauden osasun zerbitzuak), hirugarren adineko egoitza, Udalak aitortutako Auzo Elkarte, eta Udalaren Intereserako elkarten erregistroan inskribatutako Elkarte, DYA eta Gurutze Gorria, (Etxeetako kuota)

65 m ³ arte	0,63
65 m ³ baino gehiago	1,18

9. - Industria

600 m ³ arte	2,14
600 m ³ baino gehiago	2,57

10.- Nekazaritza eta Abeltzaintzako jarduerak

200 m ³ arte	0,65
200 m ³ baino gehiago	1,21

11. - Etxeetako hornidura %50eko murrizketarekin, hiri -lurrean eta landa -lurrean (baserriak) 65 m³ arte

65 m ³ arte	0,32
65 m ³ baino gehiago	1,20

12. - Etxeetako hornidura %75eko murrizketarekin, hiri -lurrean eta landa -lurrean (baserriak) 65 m³ arte

65 m ³ arte	0,16
65 m ³ baino gehiago	1,20

13. - Etxeetako hornidura %90eko murrizketarekin, hiri -lurrean eta landa -lurrean (baserriak) 65 m³ arte

65 m ³ arte	0,06
65 m ³ baino gehiago	1,20

2. UDAL SAREAREKIKO HARTUNEAK

1.- Obra hartuneak

Obra hartunerako zein behin betikorako zenbateko berdinak eskatuko dira, eta, erabilitako kalibrearen arabera izango dira zenbatekoak horiek.

2.- Behin betiko hartuneak

1.1 kalibre mota

Kalibre mota	Euro
15 mm-rainokoak	309,20
20 mm	371,11
25 mm	445,78
55.2	OL	Bide publikoan edo erabilera publikoko bide batean, baimenik gabe lasterketak egitea	500 €	6

○ PASATZEKO LEHENTASUNA

ART.		○ ARAU-HAUSTEA	ISUNA	P
56.1		Bidegurutzean lehentasun-seinalea ez errespetatzea	200 €	
56.2	L	Bidezainak gelditzeko emandako agindua ez betetzea	200 €	4
56.3	L	Semaforoaren argia gorri dagoenean ez gelditzea	200 €	4
56.5	L	"STOP" edo "Utzi pasatzen" seinaleaz araututako gurutzagunean ez gelditzea	200 €	4
57.1	L	Gurutzagunean eskuinaldetik hurbiltzen ari den ibilgailuari pasatzen ez uztea	200 €	4
57.1 a	L	Zoladura gabeko bidetik doan ibilgailuak zoladurako bidetik datorren ibilgailuari pasatzen ez uztea, eta dakarren ibilbidea edo abiadura zakar aldatzera behartzea	200 €	
57.c	L	Biribilgunean sartu nahi duenak ez uztea pasatzen barruko bide biribiletik datorrenari, eta dakarren ibilbidea edo abiadura zakar aldatzera behartzea	200 €	
58.1	L	Lehentasuna duen ibilgailuari bat-bateko maniobra bat egitera behartzea	200 €	
59.1	L	Bidegurutzean gelditzea, lehentasuna oztopatuz	200 €	
60.3	L	Estugunean larrialdi-zerbitzuko ibilgailuari pasatzen ez uztea	200 €	
60.5	L	Languneetan ibilgailuen igarotzea arautzen duten langileen aginduei jaramonik ez egitea	200 €	
61.2	L	Estugunean (zubia, tunela...) lehentasuna ez errespetatzea	200 €	
62.1	L	Ibilgailu batek atzera jo behar duenean, eta seinalerik egon ezean, ibilgailu-moten arteko lehentasun-hurrenkera ez errespetatzea	200 €	
64.A		Txirindularien pasatzeko lehentasuna ez errespetatzea	200 €	
65.1	L	Oinezkoentzako alderdian oinezkoak ez errespetatzea	200 €	
69	L	Larrialdi-zerbitzuan doan lehentasuneko ibilgailuari pasatzen ez uztea	200 €	
70.1	L	— Egokitu gabeko ibilgailuak larrialdi-zerbitzuko ibilgailuarena egitea, — faltsukeriaz	200 €	
71	L	Ibilgailuak lehentasun-seinalerik ez izatea, horretara behartuta egonda	200 €	
72.1	L	Ibilgailua zirkulazioan sartzea, lehentasuneko bidetik doazen beste ibilgailuei pasatzen utzi gabe, horien gidariei maniobrak egitera edo bat-batean abiadura murriztera behartuz, eta beste	200 €	4

		erabiltzaileentzat arriskua sortuz		
72.3	L	Beste bide batean sartzeko maniobra seinaleztatu gabe egitea	200 €	
73.2	A	Ibilgailu publikoei irteteko maniobra ez erraztea	50 €	
73.3	A	Ibilgailu publikoek irteteko maniobra seinaleztatu gabe egitea	50 €	

○ NORABIDE ETA NORANZKOA ALDATZEA, ATZERAKA IBILTZEA

ART	KAL	ARAU-HAUSTEA	ISUNA	PUNTUAK
74.1	L	Bide edo erreiz aldatzeko maniobra ez ohartaraztea	200 €	
74.2	L	Bide edo erreiz aldatzea seinaleztatu gabe, arriskua sortuz	200 €	
78.1	L	Noranzkoa aldatzea arretarik gabe eta ohartarazi gabe	200 €	
79.1	L	Debekatutako lekuan noranzkoa aldatzea, horretarako prestatutako gunetik kanpo	200 €	3
80.2	L	Atzeraka ibiltzea hamabost metro baino gehiago edo elkargune batean sartuz, maniobra bat egiteko, maniobra osagarri moduan	200 €	
81.2	L	Atzerako maniobra behar bezala seinaleztatu gabe egitea	200 €	
81.3	L	Atzerako maniobra arretarik gabe egitea, arriskua sortuz	200 €	

○ AURRERATZEA

ART.	KAL	ARAU-HAUSTEA	ISUNA	PUNTUAK
82.3	L	Herri barruan eskuinetik aurreratzea, beste erabiltzaileentzat arriskua sortuz	200 €	
84.1	L	Aurreratze-maniobra seinaleztatu gabe egitea	200 €	
86.1	L	Aurreratutako ibilgailuak aurreratze-maniobra oztopatzea, arriskua sortuz	200 €	
87.1	L	Arauz debekatutako gune arriskutsuan aurreratzea	200 €	4
87.3	L	Seinalez debekatutako lekuan aurreratzea	200 €	
89	L	Bidean arretarik gabe oztopoa gainditzea	200 €	

○ GELDITZEA ETA APARKATZEA

ART.	KAL	ARAU-HAUSTEA	ISUNA	PUNTUAK
90		Aparkatzeari buruzko Udal Ordenantza ez errespetatzea (zehaztu)	50 €	
90.1	A	Gelditzea edo aparkatzea zirkulazioa oztopatuz	50 €	
91.b	L	Behar bezala aparkatutako ibilgailuari irteten ez uztea	200 €	
91.c	L	Ibia duten eraikinetan sartzan edo haietatik irteten ez uztea	200 €	
91.e	L	Elkargune edo bidegurutzean bira egokia egitea eragozte	200 €	
91.h	L	Bigarren ilaran aparkatzea eta gidariak alde egitea	200 €	
91.i	A	Bidaiarien garraio publikorako gordetako lekua okupatzea	50 €	
91.k	A	Seinalez debekatutako lekuan aparkatzea	50 €	
91.1	L	Galtzadaren erdian edo ertzetik kanpo gelditzea, zirkulazioa larriki oztopatuz	200 €	
91.m	L	Mugatutako gune arriskutsuan edo langunean aparkatzea	200 €	

93.1	L	Espaloian edo oinezkoentzako alderdian sartzea, oinezkoentzat arriskua sortuz	200 €	
94.a	L	Bihurgunean edo ikuspen urriko lekuan aparkatzea	200 €	
94.b	A	Oinezkoen pasabidean edo gordetako guneetan aparkatzea (espaloian)	50 €	
94.d	L	Bihurgunean edo elkargunean gelditzea edo aparkatzea	200 €	
94.f	A	Seinaleak ikusten ez uztea, arauz kontrako maniobrak egitera behartzea	50€	
94.2	L	Minusbaliatuentzat gordetako guneetan aparkatzea	200 €	

○ ARGIEI ERABILERA

ART.	KAL	ARAU-HAUSTEA	ISUN A	PUNTUAK
98.1	L	Gauzez edo tunelean argirik gabe ibiltzea	200 €	
100	L	Argi luzeak arauz kontrako moduan erabiltzea	200 €	
102	L	Bidearen beste erabiltzaileak itsutzea, arriskua sortuz	200 €	
104	L	Motozikleta edo ziklomotorraren argiak etengabe piztuta ez eramatea	200 €	
105	L	Ibilgailua errepidean geldiaraztea posizioako argiak piztu gabe	200 €	
106	L	Ikuspen urriko egoeran argirik gabe ibiltzea	200 €	

○ GIDARIEN OHARTARAZPENAK

ART.	KAL	ARAU-HAUSTEA	ISUNA	PUNTUAK
108		Gidariak egingo duen maniobraz ez ohartaraztea	200 €	
109	A	Alboetara mugitzea, atzeraka ibiltzea edo balaztatzea seinalerik egin gabe	50 €	
110	A	Hots-seinaleak gehiegikeriaz edo beharrik gabe erabiltzea	50 €	

○ ATEAK ETA MOTORRA ITZALTZEA

ART.	KAL	ARAU-HAUSTEA	ISUNA	PUNTUAK
114	A	Ateak irekita eramatea, edo ibilgailua martxan dagoela atek irekitzea	50 €	

○ UHALA, KASKOA ETA GAINERAKO SEGURTASUN-ELEMENTUAK

ART.	KAL	ARAU-HAUSTEA	ISUN A	PUNTUAK
117. 1	L	Ibilgailuko gidariak edo bidaiariak segurtasun-uhala errepidean edo herri barruan ez erabiltzea	200 €	3
118. 1	L	Sidekarduna izan ala ez izan, motozikletako, hiru edo lau gurgileko ibilgailuko, ziklomotorreko edo quad-eko gidariak babes-kasko homologaturik ez erabiltzea	200 €	3
118. 1	L	Sidekarduna izan ala ez izan, motozikletako, hiru edo lau gurgileko ibilgailuko, ziklomotorreko edo quad-eko bidaiariak babes-kasko homologaturik ez erabiltzea	200 €	
118.	L	Bizikletako gidariak babes-kasko homologaturik ez erabiltzea	200 €	

1		hiriarteko bidean		
118.1	L	Bizikletako bidaiariak babes-kasko homologaturik ez erabiltzea hiriarteko bidean	200 €	
118.3	L	Gidariak ikuspen handiko jaka islatzaile homologaturik ez erabiltzea	200 €	3

OINEZKOAK

ART.	KAL	ARAU-HAUSTEA	ISUN A	PUNTUAK
121	A	Oinezkoa oinezkoen alderitik kanpo ibiltzea, zirkulazioarentzat arriskua sortuz	50 €	
122	A	Oinezkoa galtzadan ibiltzea, beste erabiltzaileen seinaleei jaramonik egin gabe	50 €	
124	A	Oinezkoak, berari emandako agindu edo jarraibideei jaramonik ez egitea	50 €	

ANIMALIEN ZIRKULAZIOA

ART.	KAL	ARAU-HAUSTEA	ISUN A	PUNTUAK
127.1	A	Adingabeak animaliak gidatzea, horretarako gaitasunik izan gabe	50 €	

LARRIALDIETAKO JOKABIDEA

ART.	KAL	ARAU-HAUSTEA	ISUN A	PUNTUA K
129	L	Istripua edo matxura izanez gero kaltetuei ez laguntzea	200 €	
130	A	Ibilgetutako ibilgailuak edo zama erori zaion ibilgailuak dagokion seinalea ez egitea, arriskua sortuz	50 €	

SEINALEZTAPEN-ARAU OROKORRAK

ART	KAL	ARAU-HAUSTEA	ISUN A	PUNTUA K
131	A	Seinaleei jaramonik ez egitea (arrazoia adierazi)	50 €	
132	A	Semaforoak edo disko bertikalak ez errespetatzea	50 €	

SEINALEEN LEHENTASUNA

ART.	KAL	ARAU-HAUSTEA	ISUNA	PUNTUA K
133	A	Lehentasun-seinaleak ez errespetatzea (bidezaina, inguruabarra, semaforoa, seinalea, marka)	50 €	

SEINALEAK

ART.	KAL	ARAU-HAUSTEA	ISUNA	PUNTUA
------	-----	--------------	-------	--------

				K
142.2	OL	Bide bateko seinaleak kendu, jarri, ezkutatu edo itxuraldatzea	500 €	
143.1	L	Bidezainaren seinaleak edo aginduak ez errespetatzea	200 €	
152	L	Sarbidea debekatzen duen seinalea ez errespetatzea	200 €	

**772/1997 E.D., maiatzaren 8koa
GIDARIEN ERRELAMENDU OROKORRA**

GIDABAIMENAK ETA LIZENTZIAK

ART.	KAL	ARAU-HAUSTEA	ISUNA	PUNTUAK
1.1		Inoiz gidabaimen edo lizentziarik lortu gabe gidatzea (Kode Penaleko 384. art.) (dagokion Epaitegira igorri)	-	-
1.1	OL	Mota honetako ibilgailuak gidatzeko gaitzen duen gidabaimen edo lizentziarik ez izatea	500 €	4
3.1	L	Gidabaimen edo lizentziaren baldintza murriztaileak bete gabe gidatzea	200 €	
3.1	L	Ziklomotorrean 18 urtetik beherako bidaiari bat eramatea	200 €	
3.1	L	21 urtetik beherako batek 15 Kw baino gehiagoko potentzia duen triziklo motordun bat gidatzea	200 €	
3.1	L	"A" motako motozikleta bat gidatzea bi urteko eskarmentua izan gabe	200 €	
3.2	A	Agintaritzaren agenteari gidabaimena edo lizentzia ez erakustea	50 €	
3.2	L	Ziklomotorra gidatzea baliozkoa ez den baimenarekin (Atzerriko gidariaren nazionalitatea adierazi)	200 €	
3.2	L	Gidabaimena edo lizentziaren indarraldia iraungita edukita gidatzea	200 €	

**2822/1998 E.D., urriaren 23koa
IBILGAILUEN ERREGELAMENDU OROKORRA**

ART.	KAL	ARAU-HAUSTEA	ISUNA	PUNTUA K
1.1	OL	Ibilgailua gidatzea, aldez aurretik dagokion administrazio-baimena lortu gabe	500 €	
7.2	L	Ibilgailuan, azterketa tekniko pasatu gabe, garrantziko erreforma egitea (adierazi egindako erreforma)	200 €	
10.1	L	Matrikulatutako ibilgailua epe barruan ez eramatea azterketa teknikorara	200 €	
10.1	OL	Bide-segurtasuna bermatzen duten baldintza teknikoak urratzeagatik, azterketa teknikoaren txartela IATko aztertoki batek kenduta duen ibilgailu bat gidatzea	500 €	
11.2	L	Atzerako ispilurik ez edukitzea kanpoaldean	200 €	
12.5	L	Ibilgailuaren pneumatikoen errodatze-bandarik ez edukitzea	200 €	

25.1	A	Matrikula-plakarik ez eramatea	50 €
26.1	A	Agintaritzaren agenteei zirkulatzeko baimena, azterketa teknikoko txartela, zirkulatzeko lizentzia edo ezaugarri teknikoan ziurtagiria ez erakustea	50 €
49.1	A	Homologatu gabeko matrikula-plakekin zirkulatzea	50 €

**UDAL-ZEHAZTAPENAK, LEHENAGO AURREIKUSTEN EZ ZIRENAK ETA UDALBATZAREN ERABAKIZ
EZARRI DIRENAK, LEGERIAK EMATEN DION AHALMENARI JARRAIKI**

ART.	KAL	ARAU-HAUSTEA	ISUNA
0,1	A	Ibilgailua bide publikoko leku berean aparkatuta, 7 egun baino gehiago (abandonatuta dagoelako susmoa)	50 €
0,2	A	Karabana edo atoaia bide publikoan aparkatuta (baimendu gabeko okupazioa)	50 €
0,3	A	Zirkulazioa oztopatzen duten banaketa-lanak	50 €
0,4	A	Ibilgailua "ZEPO"az ibilgetzea, arau-hausteagatik	BEGIRATU GARABIAREN URTEROKO TASA
0,5	A	Ibilgailua "GARABIA"z kentzea (garabi-zerbitzuaren kostua ordainaraziko da, eta gainera, dagokion arau-hausteagatik zigorra ezarriko da)	BEGIRATU GARABIAREN URTEROKO TASA
0,6	A	Ibilgailuak, ziklomotorrak etab. gordetegira eramatea	BEGIRATU GARABIAREN URTEROKO TASA

Bigarrena.- Erabakia 30 egunez jendaurrean jartzea, erreklamazioak edo oharrak egin ahal izateko.

Hirugarrena.- Hartutako erabakia jendaurrean egondako arauzko epean inolako erreklamazio edo oharririk egiten ez bada behin betiko bihurtuko da.

Laugarrena.- Alkateari ahalmena ematea erabakiaren testua eta tributuoak arautzen dituzten ordenantzak batera biltzeko, udalak onartutako aldaketa guztiak sartuz.

11. HERNANIKO UDALEKO ETXEKO ZAINZA ZERBITZUA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUAREN HASIERAKO ONARPENA.

Alkatea: Ogasun gaiak utzi eta zaintza zerbitzuen gaietara pasako gara. Bi puntu dauzkagu honen inguruan. Lehenengo, etxeko zaintza zerbitzuaren ordenantza berria edo ordenantzaren aldaketak onartzea izango litzateke.

Azaltzeko, Hernaniko zaintza estrategiaren barruan etxeko zaintza zerbitzua estrategikoa da. Batetik, ematen ditugun ordu-kopuruaren aldetik, eta, bestetik, dagoen langile kopuruaren aldetik ere. Eta hain estrategikoa izanik zaintza estrategiaren barruan, zerbitzu horren ordenantzak bat etorri behar du Hernanin daukagun zaintza estrategiarekin.

Zaintza estrategia honen helburuetako bat zein da? Pertsonak ahalik eta gehien bere etxean egon ahal izatea. Eta etxeko laguntza zerbitzuak hori ahalbidetzen du. Etxean, badakigu, denoi gustatuko litzaiyuke eta inkestek hori esaten dute, denok nahiago genukeela ahal den denbora gehien gure etxeetan pasatzea. Zerbitzu hau klabea da hori hala izan dadin.

Beraz, esan dezakegu urte luzeetan Hernaniko Udalak apustu argia egin duela zerbitzu honekin. Balorazio oso onak jasotzen ditugu erabiltzaileen partetik eta, esan bezala, lerrokatu behar dugu zaintzen estrategiarekin.

Kasu honetan, ez ditugu aldaketa asko ekartzen, moldaketa batzuk dira. Gerora zaintzen estrategian sakontzen goazen heinean ordenantza honek beste aldaketa gehiago beharko ditu, baina oraingoan beharrezkoak ziren aldaketa batzuk sartzea.

Horietako bat da aurrekoan aipatu dugun kontu bera, NISAE edo elkar eraginkortasun nodoa erabiltzeko aukera izatea. Honek administrazio aldetik sinplifikatu egiten diolako herritarrari eta Udalak datuak berak kudeatu eta bilatu ditzakeelako. Eta gero gure ordenantzan ere jasota dago edo jaso behar duguna da eta hau langileen baldintzak hobetzearekin lotuta dagoen puntu txikietako bat da, zerbitzua azken orduan bertan-behera uzten duen erabiltzaile batek azken orduan uzten baldin bada, horrek langileari ez eragitea. Eta hori ere ordenantzan jaso behar dugu. Alegia, azken momentuan bertan-behera uzten baldin bada, langile horrek ordu hori kobratu egingo du eta disponible egongo da, nahiz eta zerbitzu hori ez duen eman beharko. Bestela erabiltzailearen erritmoaren arabera, langileak ere bere baldintzak oso kondizionatuak izaten ditu. Orduan, horrek aldaketa bat behar du.

Aldaketa puntualak dira ordenantza honetan ekartzen ditugunak. Gerora etorriko dira handiagoak. Helburua bada zaintza estrategia honen barruan etorkizunera begirako etxeko zaintza zerbitzuan ere eraldaketa sakonagoak egitea.

Honen inguruan zerbait aipatzeko?

Lourdes Lopez: Ados gaude hori guztia arautu behar dela esatean, baina deigarria egin zitzaigun batzordean aipatutako asteburuetao gaia. Itzulpenean, gutxienez, asteburuetao salbuespen gisa eta agindu teknikoarekin lan egingo dela dio.

Beren senideek zerbitzu hori erabiltzen duten pertsonekin hitz egin dugu, eta, egia esan, iruditzen zaie eskubidea dutela salbuespenik ez izateko, normala izateko. Orduan, abstenitu egingo gara horregatik.

Alkatea: Beste ordezkariak baduzue zerbait aipatzeko?

Hemen azalpen eta kontu tekniko bat da, etxex-etxeko zerbitzuak ematen dituen bi zerbitzu motak ezagutzen dituzuen ez dakit... bata zaintza pertsonala da eta bestea ingurunearena. Honek ez du esan nahi jaiegunetan zerbitzurik emango ez denik. Espezialitatearena jartzen da, eta hemen kontu pedagogiko bat badago, ulertu behar duguna da esentzuala eta beharrezkoa denean, noski, zaintza zerbitzuko langile bat egongo dela. Eta preskripzio teknikoarena da orain arte bezala. Gizarte langileak ikusten duenean.

Adibide bat: badaude etxez-etxeokan ingurunearen garbiketa-zerbitzuak ematen dira. Igande batean edo jaiegunen batean garbiketa egin beharrik ez dago. Hor eskatzen ari garena baita langile bat sakrifikatzea garbiketa bat egiteko. Hori ez da beharrezkoa. Horri egiten dio erreferentzia. Beharrezkoa denean eta ingurunerik eta sarerik ez dagoenean, eta zaintza beharrezkoa denean, noski, zerbitzua ematen jarraituko da. Baina puntualizazio hori ondo islatzea beharrezkoa iruditzen zitzaigun ordenantza honetan.

Baina, argi edukitzeko, zerbitzua jasotzen duenak eta beharrezkoa duenak jaiegunetan edukitzea, jasoko du.

Honekin bozkatzera pasako gara. Hernaniko Udaleko etxeko zaintza zerbitzua arautzeko ordenantzaren hasierako onarpenaren aldeko botoak? EH Bildu, EAJ eta Euskal Sozialistak udal taldeak. Kontrako botoak? Ez dago. Eta abstentzioak? Elkarrekin-Podemos udal taldearenak. Hortaz, ordenantza berria onartuta gelditzen da.

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	19	<ol style="list-style-type: none"> 1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. 2. Itsaso Lekuona Legorburu. 3. Patxi Ibarguren Echeverria. 4. Ainara Atorrasagasti Urizar. 5. Aitor Lukas Solano. 6. Asier Mingo Arruabarrena. 7. Amaia Miner Canflanca. 8. Aitor Huizi Izagirre. 9. Urko Lazkoz Fernandes. 10. Oier Agirresarobe Lizaso. 11. Miren Kistiñe Rodríguez Polaina. 12. Andoni Amonarraiz Gómez. 13. José Antonio Cuesta Solé. 14. Blanca Alberro Aranzasti. 15. Miryam Vazquez Vecino. 16. Mikel Gurutzeaga Zubillaga. 17. Ismael Ganchegui Gonzalez. 18. Ricardo Crespo Rubio. 19. María Jesús Ruiz Ochoa
KONTRA		
ABSTENTZIOAK	2	<ol style="list-style-type: none"> 1. Jaione Aristregui Cao. 2. Lurdes López Gorrotxategi.

OSOKO BILKURAK HARTUTAKO ERABAKIA

Egungo Etxeko Zaintza Zerbitzuaren udal-araudiak, Gizarte Zerbitzuen 1996ko Legean ezarritakoari jarraiki onartutakoak, egokitzapen bat eskatzen du, azken urteotan Zerbitzu Sozialen testuinguruan ezezik Udaleko Zaintza Estrategiaren balio sozial, ekonomiko eta politikoarekin bat datozen garrantziko aldaketak ere kontutan hartu dira.

Bai Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea, bai Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea onartzeak ondorio nabarmenak izan ditu gizarte zerbitzuen alorrean.

22. artikuluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoa definitzen du; horrek etxez-etxeko laguntza zerbitzua barne hartzen du, eta zerbitzu horiek emateko

eskumena udalei ematen die.

185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea garatzen duenak, aipatutako eskubide subjektiboa zedarrizten du, Gizarte Zerbitzuen Legearen katalogoan zehazten diren baldintzak, irizpideak eta prestazioetarako eta zerbitzuetarako sarbidea erregulatuz.

Aldaketa horiek guztiak araututa gelditu ziren 2018ko urriaren 18an GAOn argitaratutako erregelamenduaren arabera.

Aipatutako aldaketa arauemaileez gain, errealitate sozialean ere bilakaera nabarmena antzeman dezakegu: adinekoen hazkunde demografiko mailakaturia, bizi- itzaropena areagotzearen ondorioz, eta adin-piramidearen aldaketa gure gizartean. Familia-harremanetan ere aldaketak izan dira, gizarte-zerbitzuen babes eta garapenerako agente gisa. Haiek dira bizitza oso bat izateko beharrezkoak diren zerbitzuak definitzea sustatzen ari diren faktore garrantzitsuenetako bat, are gehiago mendetasun maila altua duten edo babes sozialik gabe dauden pertsonen kasuan.

Pertsonen beren mendetasun mailakaturia laguntzeko zerbitzuak nola eman pentsatu eta zehazteko, lehentasunezkoa da pertsona horiek ahalik eta denbora gehien beren etxean geratzeko nahia kontuan hartzea, bizitza osoan zehar izan duten erreferentziazko sare soziala mantenduz. Alabaina, etxebizitzaren inguruak, sarbideek, komunitateak dituen laguntza-zerbitzuek eta abarrek beste alderdi asko kontuan hartzea eskatzen dute, eta mendetasuna duen pertsonaren bizitza garatzeko aukerak mugatzen dituzte.

Mendetasun egoeran edo mendetasun egoeran egoteko arriskuan dauden pertsonen arreta emateko behar horrekin batera, egoera sozial konplexuak sortzen ari dira. Izan ere, zaurgarritasun edo ahultasun sozialeko egoeran bizi diren familia batzuek, beren beharrezkoekin oinarritzeko arreta jaso dezaten, etxez-etxeko laguntza behar dute.

Horrenbestez, udal-araudi honek udaleko Etxeko Zaintza zerbitzurako sarbidea arautu nahi du, zerbitzura sartu nahi duten pertsonak balioetsi eta gero, behin zerbitzurako eskubidea aitortua izan zaienean, arreta pertsonalizatutako plan bat landu ahal izateko.

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2025eko irailaren 25ean gehiengoz emandako irizpena

Horiek guztiak kontutan hartuta, 7/1985 legearen 22.2 d) artikulua arabera, honako hau

Horiek horrela OSOKO BILKURAK gehiengoz erabaki du :

Lehena.- ETXEKO ZAINZA ZERBITZUAREN ERREGELAMENDU ARAUTZAILEAREN ALDAKETA-ria hasierako onarpena Osoko Bilkurak ematea.

Bigarrena.- GAOn hasierako onarpenaren iragarkia argitaratu eta 30 laneguneko informazio publikoa irekitzea

12. HERNANIKO ETXEKO ZAINZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ONESTEA.

Alkatea: Honekin hurrengo puntura pasako gara. Aurrekoarekin oso lotuta, erabat lerrotuta dagoen puntua da eta da etxeko zaintza zerbitzuaren ordenantzan egin baldin baditugu aldaketa batzuk, horrek eskatzen duena da etxeko zaintzaren pleguetan ere aldaketak egitea.

Gure posizio politikoa, beti esan dugu, argi dagoela. Zaintza zerbitzuek irabazi asmotik atera egin behar dute. Horretan sinesten dugu. Helburua hori da eta argi daukaguna da zerbitzu horiek bermunizipalizatu behar direla. Baina, beti dioguna, gaur gaurkoz eta legearen barruan ezinezkoa dugu hori egitea.

Horregatik, etxeko laguntza zerbitzu berri bat irudikatu nahi baldin badugu, behartuta gaude lizitazio baten bidez egitera. Eta lizitazio horretarako pleguak dakartzkigu gaur. Hilabete luzez landutako pleguak dira, sektoreko eragileekin batera landu ditugunak. Zaintza sektoreko eragileekin batera ari garelako definitzen Hernaniko zaintzaren estrategia. Eta estrategia horretan lan-ildoetako bat zaintzaileen zaintzarena da. Zaintzaileen zaintza, noski, zaintzaileen lan-baldintzei erreferentzia egiten diena. Hemen argi dagoelako, eta zaintzaileen lan-baldintzak onak baldin badira eta beraiek egoki eta ondo baldin badaude lanean, honek zainduen edo zaintzen kalitate eta ongizatean eragin zuzena dauka.

Plegu hauek erantzuten diote Hernani Burujaberaren baitan dagoen Zaintza Mahaiarekin eta etxeko laguntzaren langile ordezkariarekin adostutako lau urteko plan bati. Lau urteko plan bat onartu dugu. Lau urteko plan horretan etxeko laguntza zerbitzuko langileen (40 langile inguru, denak emakumeak direnak) baldintzak modu esanguratsuan hobetuko dira. Lau urtetan beraien soldatek %45eko igoera izango dute eta horrez gain, lanorduen murrizketa bat eta honekin administrazio publikoko langileen lan-baldintzetara hurbiltzeko pausoak emango dira.

Baldintzei dagokionez, eta zuzeneko eta ekonomikoarekin zerikusia dutenak, baina guretzat plegu honetan egin den lanketa oso sakon eta beharrezko bat ere da lanorduetan langile hauek formaziorako eskubidea izatea. Eta langile hauek elkarren artean elkarrekin egoteko eskubidea eta moduak izatea. Kontuan eduki behar dugu etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileek etxez etxe egiten dutela lan, oso lan indibiduala dela eta beharrezkoa dela langile hauek kolektiboan egoteko aukera izatea.

Orduan, gauza teknikoagoetan sartuta, pleguek urtebeteko kontratua planteatzen dute. Urtez urte luzagarria dena, izan daitekeena lau urtera arte, urteko aurrekontua gutxi gora-beherako datuak dira, dokumentazioan eta badaude datu eta zenbaki zehatzak, baina 1'7 milioikoa izango litzateke. Hemen salto kuantitatibo eta kualitatibo handia dago oso. Eta lau urtetarako sei milioi inguruko inbertsioaz hitz egiten ari gara.

Bada, esan bezala, Udalak egiten duen esfortzu ekonomiko handia, baina baita estrategikoa ere, ari garelako etorkizuneko Hernani zaintzaile bat marrazten eta, esan bezala, etxeko laguntza zerbitzua esentziala delako horretarako.

Honekin pentsatzen dut errondan hitz egin nahiko dela.

Lourdes Lopez: Alderdi sozialistak esan duen gauza bera, iaz errepikatu genuen eta datorren urtean ere errepikatuko dugu. Badakigu zertaz ari garen. Oraingoan aldea ikusi dugu, izan ere, batzordean esan diguzue zerbitzua duintzeko "neska" izateari utzi eta "Udaleko langile" izateko helburua dagoela. Hori da nahi duguna. "Udaleko langile" izan dadila, baina benetan, "Udaleko langile".

Hori da dena.

Alkatea: Eskerrik asko.

Horri erantzunez, eta nik ere urterokoa esango dizut, zer proposatzen duzue? Esan dizuet, gure helburua bada zerbitzu hauek eta irizpidea gurea ere bada, zerbitzu hauek bermunizipalizatu behar direla eta udal langile izan behar dutela. Esan dizuet, gaur gaurkoz, legez ezin da. Zer da proposatzen duzuen?

Lourdes Lopez: Garbitania eta Atez Atekoarena zailagoa zen eta lortu genuen.

Alkatea: Ez didazu erantzun. Zer da proposatzen duzuen? Zeren beste kontraturen batean hitz egiten aritu izan garenean, zuzenean galdetu izan dizuet: kontrako txostenarekin aurrera egiteko prest egongo zinake? Eta zuen erantzuna izan zen: "ez".

Egoera horretan gaude.

Gaur gaurkoz, legez, ezin dugu egin. Eta esatea bere garaian Garbitaniarekin egin zela, legeak ahalbidetzen zuelako. Eta azterketa horiek egin dira. Egin duzue alternatiben azterketarik? Guk bai. Eta ez dago alternatibarik. Ezin dugu gaur gaurkoz legearen barruan zerbitzu hau bermunizipalatu. Eta ahalko balitz, ekar diezazkiguzue datuak. Zeren urtero-urtero debate berdinean gaude. Eta urtero-urtero Gobernu Talde hau da neurriak hartzen ari dena langileen hobekuntzan. Zeren Elkarrekin-Podemosek hori esan bai, baina ez du proposamen bakar bat ere egin. Jakinda legearen barruan ezin dugula egin, urteroko diskurtso berdina da. "Publikoa izan behar du". Ados, publikoa izan behar du! Publikoa da. "Bermunizipalatu, berrintegratu izan behar du eta langileek udal langile izan behar dute". Gaur gaurkoz ezin da legearen barruan. Hitz egin duzue langileen ordezkariekin? Ez duzue hitz egin. Hitz egin duzue langileen ordezkariak zer pentsatzen duten hilabete luzeetan egin dugun lan honen inguruan? Ez, ezta?

Entzun langileak ere. Entzun.

Hau izan baita formula bat etorkizuneko bidea eraikitzeko. Esan bezala, lau urteko plan bat, lau urteko planean udal langileen baldintzetara berdinuko direnak. Eta hau da hilabete luzeetako lan sakon baten ondorioa. Hemen bi aukera daudelako: edo alternatibak bilatu edo eserita gelditu. Guk lehenengoa egin dugu. Zuek, ez dakit.

Jaione Aristregi: Ezer ez, nik gauza txiki bat aipatu besterik ez. Zerbitzu hori, bere garaian, duela urte batzuk, publikoa zen, Udalarena. Eta Ezker Abertzaleak pribatizatu zuen. Une hartan posible bazen, agian gaur egun ere posible izateko modua aztertu beharko litzateke.

Alkatea: Erantzun dizut eta urtero erantzuten dizut, Jaione. Bada garaia diskurtsoetik ateratzeko. Benetan. Eta beti esaten dizuet, elkarrekin lan egin dezakegula. Urtero esaten dizuet. Guk aztertu dugu, noski aztertu dugula. Zuek ez! Zuek ez! Eta alternatibarik baldin badago ekarri!

Niri pena ematen didana da gaur ematera goazen pauso honetan, pauso ikaragarria izanda, ikaragarria, ez duzuela hartu segundo bat ere, egin diren aldaketak eta honek suposatzen duena aztertzeke. Ez duzue segundo bat hartu; hortxe mantendu zarete. Eta aldarrikapena zilegi da eta ados gaude. Zerbitzu hauek irabazi eremutik kanpo eman behar dira. Bitartean, zer da proposatzen duzuen? Ez da proposamen bakar bat ere etorri 10 urteetan. Eta 10 urte esaten dut, ni 10 urte nabilelako etxer etxeko zerbitzuarekin zuzenean, eta 10 urteetan Gobernu Talde honek eta aurrekoek hobekuntzak aplikatu ditugulako. 10 urte hauetan Elkarrekin-Podemosetik beti etorri da kontra, kontra, kontra, kontra, eta alternatibarik ez. Ongi etorriak izango dira alternatibak, benetan. Eta, benetan, serio esaten dizuet, lanketa hau intentsua da, intentsua izan da, baina era berean oso polita eta aberatsa.

Jaione Aristregi: Hau ere zuen hauteskunde-programan daramazuela gogoratu, besterik ez.

Alkatea: Irakurri ondo. Hauteskundeetako gure programan jartzen duena da helburua hori dela eta horren bidean lan egingo dugula. Eta uste dut hasi naizela esaten, helburua hori da eta bide horretan lanean ari gara.

Hortik ez nauzu harrapatuko. Uste dut defentsarik ez daukazuenean ezin duzuela erasotu. Onartu. Ez duzue proposamen bat bera ere egin. Bat bera ere ez. Bat ere ez 10 urtetan. Eta hemen bide bat ezartzen ari gara helburu batera iristeko. Hori delako bide bakarra.

Langileak entzutea oso interesantea da eta horregatik esaten nuen, oso lanketa polita izaten ari da. Langileekin egon garelako zuzenean, langileen ordezkariekin egin dugu lan eta langileak entzutea bazen pozez betetzeko kontu bat, ikusita ze errekonozimendu jasotzen ari diren administrazio publikoaren partetik eta Hernaniko Udal osoaren partetik. Eta hori da, uste dut, balioan jarri behar duguna. Eta ongi etorriak izango zarete, benetan esaten dizuet; urtero edo sei hilabetero errepikatzen dizuet. Lanketa oso polita delako eta uste dut ezker ikuspegitik eta ikuspegi feminista batetik, asko aportatu dezakegula elkarrekin. Puska ditzazuela barrerak, mesedez, eta goazen elkarrekin lan egitera, besteak beste, lanketa honetan. Ate guztiak zabalik baitaude. Honetan eta beste askotan. Sarri esan dizuegu eta uko egin izan diozue elkarrekin lan egiteari.

Nik zorionak emateko aprobetxatu nahiko nuke publikoki, Udal Gobernu Talde guztiaren izenean, etxeko laguntzako langile guztiei, egunero egiten duten lanagatik aparte lanketa honetan beraien ordezkariak egin duten esfortzuagatik. Horri esker gaur pauso handi bat ematera goazelako, lizitazio hau martxan jarri eta 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hitzarmen kolektibo berriarekin martxan hasteko moduan izango garelako. Eta zorionak denen artean ari garelako etorkizuneko zaintza estrategia irudikatzen nolabait. Eta, esan bezala, denak ongi etorriak izango zarete, zeren lanketa oso-oso polita izaten ari da.

Honekin, bozkatzera pasako gara. Hernaniko etxeko zaintza zerbitzua kontratatzeko lizitazioa onestearen aldeko botoak? EH Bildu, EAJ eta Euskal Sozialistak udal taldeenak. Kontrakoak? Elkarrekin-Podemos udal taldearenak. Beraz, lizitazioa onartutzat ematen da.

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	19	<ol style="list-style-type: none"> 1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. 2. Itsaso Lekuona Legorburu. 3. Patxi Iburguren Echeverria. 4. Ainara Atorrasagasti Urizar. 5. Aitor Lukas Solano. 6. Asier Mingo Arruabarrena. 7. Amaia Miner Canflanca. 8. Aitor Huizi Izagirre. 9. Urko Lazkoz Fernandes. 10. Oier Agirresarobe Lizaso. 11. Miren Kistiñe Rodriguez Polaina. 12. Andoni Amonarraiz Gómez. 13. José Antonio Cuesta Solé. 14. Blanca Alberro Aranzasti. 15. Miryam Vazquez Vecino. 16. Mikel Gurutzeaga Zubillaga. 17. Ismael Ganchegui Gonzalez. 18. Ricardo Crespo Rubio. 19. María Jesús Ruiz Ochoa

KONTRA	2	1. Jaione Aristregui Cao. 2. Lurdes López Gorrotxategi.
ABSTENTZIOAK		

OSOKO BILKURAK HARTUTAKO ERABAKIA

Hernaniko udalerrian etxeko zaintza-zerbitzua emateko kontratua esleitzeko espediente berriaren izapidetzeari ekin zaio.

Ikusi dira espedientea osatzen duten dokumentuak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko, azaroaren 8ko, 9/2017 Legearen 116. artikuluan jasotzen direnak. Lege beraren 117. artikuluan xedatutakoa kontuan izanda,

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2025eko irailaren 25ean gehiengoz emandako irizpena

Horiek horrela Osoko bilkurak gehiengoz erabaki du:

Lehena.- Onartzea Hernaniko udalerrian Etxeko Zaintza Zerbitzua emateko kontratazio espedientea, ohiko prozedura ireki eta harmonizatu bidez egikaritzeko dena eta kontratu hau arautuko duten Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria.

Bigarrena.- Onartzea gehienezko lizitazio prezioa izango dena, hau da, 1.724.657,19 €+BEZ (68.986,29 €). Guztira: **1.793.643,48 €**

Gastua aurrekontuko honako partidaren kontura onartzea:

Etxez etxeko laguntza zerbitzua: 1 1710.227.04.231.14 2026 (4679)

Hirugarrena.- Kontratu honen iragarkia Europako Aldizkari Ofizialean eta Udal Kontratatzaile Profileen argitaratzea eta 30 egun naturaleko epea ematea proposamenak aurkezteko.

13. ESKARIAK ETA GALDERAK.

Alkatea: *Azken puntura iritsiko gara. Ikasturte hasiera, pleno laburrak izan ditugu, baina lehenak ezin zuten horrela izan. Eskaera eta galderak dauzkagu? Talde politikoek ez, herritarrek publikotik bai.*

Denis (publikotik): Udal Gobernuak nahikoa izan du eta tarte izan du erantzuteko. Nik, pleno honen dinamika ikusirik, galdetu nahiko nieke beste udal ordezkariari, EAJ-PNVri eta PSOEek ere baiezkoa eman du, zuek esan duzue kultur etxea egitearen kontrako bozka ematen duzuela kokapenagatik. Hori bai, plantaren kokapenarekin ez zaudete ados, baina baiezkoa bozkatu duzue. Jakin nahiko nuke argudio bera erabilia, zer arrazoi dauden bozka desberdina emateko.

Alkatea: Denis, barkatu, denboragatik baino, gaia jada tratatu dugulako lehen puntuan eta hor zegoelako aukera.

Eskatuko dizut motz-motz egitea.

Denis (publikotik): Herri honetan hondakinen kontua debate politiko izugarria da. Hori bai, bilkura honetan, kontu teknikoak kenduta, baiezkoko gehien lortu duena, Elkarrekin-Podemosena kenduta, gai hori izan da. Benetan interes politikoak daude? Interes ekonomikoak daude? Nola bat-batean hondakinen kudeaketak hainbesteko oniritzia jaso du? Eta zuri, Alkateari, erraustegiarekin damutzen ari gara, agian bai; eta nik galdetu nahi nizuke Parisen ba omen da planta berdin bat eta joan al zarete hara? Aztertu duzue? Galdetu duzue han zer gertatzen den? Aztertu duzue hark nola

funtzionatzen duen eta ze ondorio izan ditzakeen? Erraustegiarekin ere berdina esan zitzaigulako, hark ez zuela toxikorik, ez zuela kutsatzen.

Alkatea: Denis, errepikatzen dizut, ez daukat erantzuteko inongo arazorik eta erantzungo dizut, baina uste dut gaia jada tratatuta dagoela. Ez dakit beste ordezkariak erantzuteko asmorik baduten...

Mikel Gurutzeaga: Uste dut argi geratu dela, hasierako desadostasuna kokapenarekin bihurtu da lehenetasuna proiektua hobetzea, ikusita proiektua aurrera aterako dela.

(Publikotik hizketan ari dira).

Mikel Gurutzeaga: Nik uste dut ezin direla kultur etxearen proiektua eta gai hau alderatu. Gu kulturgunearen alde gaude, baina ikusten dugu Kaxkoan ezartzea ez dela hain egokia eta ikusten dugu auzo batera eramatea oso egokia dela herriarentzat. Baina hor ez gara saiatu hobetzen hemen Tilosetan... saiatuko gara proiektua aurrera doanean, hobetuko dugu, baina hobetuko dugu edukietan, ez dakit, hirigintza konturen batean akaso, kultur edukietan eta jardueretan... Baina nik uste dut ezin direla biak alderatu. Eta esango nuke ondo argudiatu dugula gure jarrera.

Ez dut uste alderatu daitezkeenik bi gauzak kokapenari lotuz.

Alkatea: Ez dakit Euskal Sozialistak udal taldeak erantzun nahi duen...

Ricardo Crespo: Tira, hau ez da ohikoa, azkenean galderak ez ditugu oposizioak erantzun behar, Gobernuaren kudeaketari lotutakoak izaten baitira. Baina, noski, nola ez, erantzungo diot bizilagun bati.

Gure iritziz, oso desberdinak dira bi gauzak, promotorea oso ezberdina delako. Hori lehenengo puntua. Batean enpresa pribatu bat da eta beste batean Udala. Eta Udalak bere gain hartu dezake erabakia non jarri nahi duen kultur etxea; eta ekimen pribatuaren kasuan, betetzen baldin baditu, udalak ezin izango du kontrako jarrera izan.

Beste gauza bat ere bai, eta gure ustez baita ere oso garrantzitsua dena, orain dela urte asko egin zelako kulturgunearen inguruko bozketa bat herrian eta kokapen bat hautatu zen. Gure ustez, kokapen hori oraindik indarrean egon daiteke, kulturgunea bertan jartzeko.

Alkatea: Nik aipatzeko, Denis, agian udal jardunaren ezezagutzagatik izango da. Nik beti aipatzen dut, Udal honetan hartzen diren erabakien %85 aho-batez hartzen da (ez da datu zehatza). Eta hemen aho-batez ere hartu dira. Ulertzen dut zalantza izan dezakezula adostasun politiko bat egotea negoziaketa baten ondorioz. Niretzat hori positiboa da. Eta ojala denean iritsiko bagina gauzak hobetu egiten ditugulako eta gure jarduna, hemen Udal honetan, gurea eta udal talde guztiena bada adostasunera iristea. Zoritzarrez, eta hau askotan hausnartzen den kontu bat da, publiko egiten direnak desadostasunak izaten dira. Baina erabakien %85a ez bada akaso gehiago, aho-batez hartzen da eta gaur ere horiek horrela izan dira.

Xabier (herritarra, publikotik): Arratsalde on. Galdera xume bat: azkeneko gaiaren inguruan, etxez etxeko zaintzaren gainean aritu zarete, eta aipatu duzu zehazki azken momentuan zainduak bertan-behera uzten baldin badu zerbitzu hori, ordaindu egin beharko lukeela. Azken momentuan bat-

batean edo uste gabean, bertan-behera uzten baldin badu zaintzaileak joan behar izate hori, ordaindu egin beharko litzatekeela ordu hori.

Nire galdera da: eta alderantziz bada? Zaintzaileak bertan-behera uzten baldin badu azken momentuan zerbitzua? Nork ordaindu behar du?

Alkatea: Langileak, printzipioz oso salbuespenezko kontu eta istripu-kontu bat ez baldin bada azken orduan ez luke bertan-behera utzi beharko. Ez dakit kasua eman delako esaten duzun, baina eman baldin bada da azken momentuko zerbitzu izan delako eta hor, noski, zerbitzua ez da kobratu behar. Eta, hemen esaten duguna da langileari ordainduko zaiola. Eta esaten dugunean azken orduan bertan-behera uztea, badaude batzuetan arrazoiak justifikatuak ez direnak. Adibide asko egon daitezke. Hauek denboraz aurreikusi zitezkeen bertan-behera uzte horiek aurretiaz denborarekin egiten baldin badira, ez dira ordainduko. Hauek dira aurrez antolatu zitezkeen eta berandu komunikatzen diren kasuetan. Baina hemen garrantzitsua dena da kasu horietan langilea ez dela galtzen aterako.

Xabier (herritarra, publikotik): Aipatu dut gertatu delako eta ordu hori kobratu delako.

Alkatea: Ados. Ordenantza berri hau indarrean jartzen denean, hori ez dugu jaso, egia esan, baina ez litzateke egin beharko. Udalak ez duelako zerbitzu hori eman. Eta, gertatuko zen oso egoera salbuespen batean eta behin, ez dakit zenbat mila ordutatik. Eta azken kontu eta istripu edo antzeko zerbaitegatik izango zen.

Honekin bai, iraileko plenoa hemen utziko dugu.

Hernanin, 2025eko irailaren 30ean

Idatziz gera dadin eta ondorioak izan ditzan egin dut ziurtagiri hau, alkatearen aginduz eta bere oniritziarekin

O.E

HERNANIKO ALKATEA

Ziurtagiri hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna, QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikokoaren bidez egiazta dezakezu.

